

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Toki ezin hobe hartuta, bidea
libre du EH Bilduk RAMON SOLA > 11

JAVIER SALUTREGI ETA IÑAKI SOTO:
Euskal kazetaritzaren iragana, oraina
eta geroa, eztabaidagai > 22

2017ko martxoaren 25a | XI. urtea • 511. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



MINTZALAGUNA, EUSKARAZ EGITEKO, LAGUNAK EGITEKO

BADA JENDE UGARI EUSKARAZ MINTZATU NAHI BAINA EZIN DUENA, JAKIN
ARREN, EZ DUELAKO NOREKIN HITZ EGIN, EDO AUSARTZEN EZ DELAKO.

MINTZALAGUNA EGITASMOAK AUKERA HORI ESKAINI NAHI DIE ETA
MILAKA LAGUNEKO SAREA OSATU DU EUSKAL HERRI OSOAN. > 12 GAUR8

Elga Prado: «Ez ninduten hezi emakumea erabaki dezakeen herritar gisa ikusteko» 04

Ikusmira: Modiren India berriari zahar usaina dario 07

Etiopiako Gobernuari egotzi diote Kosheko zabortegiko istripua 08

Mintzalaguna, euskaraz hitz egiteko lagun sarea 12

«Arabako emakumeak lanean. 1890-2000», argazkitan 17

Javier Salutregi eta Iñaki Soto, solasean, «Egin»-etik GARARA 22

Ikusmira: Bidera salto egin duen jendartea 25

In fraganti: Rosi Lazkano 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



4



8



SINADURAK:

- 03 **Isidro Esnaola:** Europar Batasunaren urteurren zaila
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Zer egiten duzu zuk?
- 11 **Ramon Sola:** Toki ezin hobe hartuta, bidea libre du EH Bilduk
- 16 **EXPRAI**
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Lixiba usaina
- 21 **Amaia Nausia Pimoulier:** Aitatasun berriak. Ongi etorriak Zaintza Planetara
- 27 **Miren Azkarate Badiola:** Epaiketa bat baino gehiago
- 27 **Antton Izagirre:** Etorkizuna amets
- 30 **Rosa Arruabarrena Santos:** Youtuberrez eta bloggerrez baina haratagoko lan merkatua



17



28

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Europar Batasunaren urteurren zaila

L arunbat honetan Erromako Ituna sinatu zela 60 urte betetzen dira. Akordio hori egungo Europar Batasunaren abiapuntua izan zen. Ospakizuna momentu txar batean iristen da, batasun proiektuak ez du-eta bere momentu hoberena bizi. Datorren asteazkenean, Britainia Handiak Europar Batasuna uzteko prozesua martxan jarriko du. Horrez gain, Europako estatueta gero eta nabarmenagoa da Europar Batasunaren aurkako giroa, eta arazoei aurre egiteko Europar Batasunak duen ezintasuna ere agerikoa da: errefuxiatuen afera, ekonomiaren sustapena, Mediterraneoko herrialdeen krisi sakona, Ukrainako egoera... Arazoak bata bestearen atzetik. Giroa borobiltzeko Europako Batzordeko presidenteak, Jean Claude Junckerrek, Europar Batasunaren etorkizunari buruzko liburu zuria aurkeztu berri du. Dokumentu horretan bost agertoki marrazten dira, eta txostenaren benetako helburua bi abiadurako Europa eraikitzeke oinarriak jartzea da. Hori bai, aipagarriena honakoa da: Europako elitea hain modu ireki eta konplexurik gabean hitz egiten ikustea bi abiadurako Europari buruz.

Europar Batasunaren urteurrenaren harira, kanpotik gauzak nola ikusten diren aztertzeak beste ikuspegi bat ematen du. Bada, pasa den urteko maiatzean, Brexitaren aurretik, argitaratutako "Errusiarentzat estrategia" txostena aipatuko dut. Egilea Errusiako Kanpo eta Defentsa Politikorako Kontseilua da. Kontseilu horretan politikariak, akademikoak, enpresariak eta diplomatikoak biltzen dira. Idazlan horrek Europar Batasunari buruz jasotzen duen irakurketa laburra oso interesgarria iruditu zait.

Abiapuntu gisa txostenak onartzen du Europar Batasuna eredu gisa ikusten zela nazioartean garai batean, indarriarik gabeko gune gisa. Era berean, Europatik kanpo, bizitza erosoaren eredu ere bazen gehiengoarentzat. Hala ere, 2000ko hamarkadaren erditik aurrera, Europar Batasuna erpin asko dituen krisialdian murgildu zen. Krisi horretan oinarri ezberdinak ikusten dituzte errusiarrek. Alde batetik, ikuspuntu ekonomikotik, munduko merkatuetan lehiakortasuna galdu du Europar Batasunak. Errusiarren iritziz, Europar Batasuneko estatu gehienetan lehiakortasun hori «gehiegizko babesak» zapuztu du. Ideia hori ez da berria, Alemaniako Gobernu bera ere iritzi berekoa baita. Hamar-

kada luze darama Alemaniak ongizate estatua berrantolatzen, bere ekonomiak lehiakortasuna irabaz dezan. Bestetik, ikuspuntu politikotik, 90eko hamarkadaren euforiaren ondorioz, zabalkunde azkarregia bultzatu zuen Europako eliteak. Ondorioz, Europar Batasunaren barruko ezberdintasun ekonomiko eta kulturalak, lausotu beharrean, sakondu egin ziren. Oinarri nahikorik gabeko beste erabaki bat euroaren sorrerarena izan omen zen, zuzendaritza ekonomiko orokorrik gabe jarri baitzen abian. Kanpo eta defentsa politikaren bateratzea ere oinarri gabe egin ei zen. Bat egite hori denen arteko izendatzaile komunaren arabera egin zen. Horrek adostasun esparrua asko mugatu zuen, estatu bakoitzaren kanpo interesak eta politikak arras ezberdinak direlako. Azkenean, kanpo politikaren bateratzeak Europar Batasunaren nazioarteko eragina indartu beharrean ahuldu egin du. Beste maila batean, elitearen eta herriaren arteko distantzia handitu egin dela aipatzen du txostenak. Defi-

90eko hamarkadaren euforiaren ondorioz zabalkunde azkarregia bultzatu zuen Europako eliteak, eta Batasunaren barruko ezberdintasun ekonomiko eta kulturalak lausotu beharrean sakondu egin ziren

zit demokratikoa gero eta agerikoagoa dela, batasun prozesua aurrera joan ahala gero eta ahalmen gehiago pilatu direlako Bruselan. Erabakiak herritarrengandik urrundu dira, eta, era berean, Europar Batasuna etengabeko hauteskunde kanpaina batean murgilduta dago; estatu batean ez bada, ondokoan. Elezio sistemak eliteak epe luzeak erabakiak hartzea eragozten du eta horrek lidergoa ahultzen du.

Azken ideia moduan, txostenak dio Europaren bazterretan mundua aldatu egin dela, «europarra ez den bide bateatik gainera»: estatuak birnazionalizazioaren, edo, beste modu batera esanda, beren burua indartzearen, aldeko apustua egin dute. Ondorioz, munduak egonkortasuna galdu du eta indarraren politika sendotu egin da. Europa mundu horretan eragiteko tresnarik gabe gelditu da errusiarren ustez. Beharbada, antzeko irakurketa egin du Europako eliteak, eta hortik dator bi abiaduren aldeko apustua. •

«Ez ninduten hezi emakumea erabaki dezakeen herritar gisa ikusteko»

E magina naiz. Baina ez ninduten eskubideetan formatu, arlo klinikoan baizik. Ez ninduten hezi emakumea erabaki dezakeen herritar gisa ikusteko», adierazi du Elga Pradok. Gogoan du karrerako lehendabiziko urteetan, osasun zentroetan lan egin zuenean, nerabe bat joaten bazitzaion abortatu nahi zuela-eta laguntza eske sermoia botatzen ziola erranez nola zen posible, izaki biziduna zela... «Manuela Ramos mugimenduan lanean hasi nintzenean konturatzen hasi nintzen gauzak ez direla hala, emakumeak herritarrak garela eta errespetua merezi dugula. Gauza aunitz desikasi behar izan nituen. Eskola katoliko batean ikasi nuen eta nire ingurukoek eskuak burura eramaten dituzte nirekin. Eskolako zuzendariak erran izan dit: ‘Ze momentutan atera zinen bide zuzenetik!’».

Kontatu duenez, talde feministak 38 urte ditu. «Bost lagun gara antolakuntzan, eta kolektiboan 40ra iritsi gaitezke. Gutxi gara baina iritzi korronteak sortzeko eta gure inguruko agintariak estutzeko gai gara. Gai hauetarako aurrekontuak aurrera ateratzea lortu dugu». Erantsi duenez, jendarteko bertze sareekin elkarlanean ari dira, ez dauke bakarrik eta hori hagitz garrantzitsua da.

Bi kiderekin batera etorri da Donostiara Elga Prado, Gipuzkoako Medicus Mundik gonbidatuta, elkarrengandik ikasteko asmoz.

Eman iezaguzu Perun garatzen ari zareten programaren berri.

Egia erran, bi programa dira: bata sexu heziketa integrala, hamabost hezkuntza zentrotan lantzen ari garena. Eta bertzea indarkeria matxistaren prebentzioa nerabe eta gazteen artean.

Nerabeak haurdun gelditzea herrialdeko arazo handietako bat da.

Hala da. Orain dela hogeititik ez da jaitsi haurdun gelditzen diren nerabeen kopurua. Mantendu egin da eta goraka-

dak ere izan ditu; %13,5 eta %16ra ere iritsi da. Manuela Ramos mugimenduan lan egiten dugun eskualdeetan, gainditu egiten dira tasa horiek. Arazoa are larriagoa da. Errealitate horretan, ekintza batzuk egiten ari gara, arazoa ikusarazteko eta Estatuari berari presioa egiteko, gai hauei hel diezaien, nerabeen haurdunaldia, sexu indarkeria eta feminizidioa estalitako arazoak baitira.

«On line» espazioetan gertatzen den indarkeriari aurre hartzeko ikerketa hasiko duzue Medicus Mundirekin elkarlanean.

Izan ere, teknologia berriak, birtarteko hagitz erabilgarria izateaz gain, indarkeria matxistarako tresna bat ere izaten ari dira, kontrolerako bide bat. Hor jarri nahi dugu gure lanaren fokua, eta ikerketa bat abiatu Perun eta Gipuzkoan egoera zein den jakiteko. Bi errealitate erabat ezberdinetan egon arren –Peru hiru garren munduko herrialdea izanik, arazo ugariarekin, eta Gipuzkoa herrialde europarra– agenda bera dugula ikusten ari gara: indarkeria matxistari aurre egiteko lan egitea. Gure herrialdean, agian, gogorragoa da egoera, baina hala ere agenda partekatzen dugu Manuela Ramosek eta Medicus Mundik.

Horixe galdetu behar nizun, beharbada, eman dezakeelako hemen arazoa txikiagoa dela.

Konponduta egonen balitz bezala, eta ez da hala. Hori ere ikasten ari gara. Elkar elikatzen ari gara.

Perun garatzen ari zareten programetara itzuliz, azaldu nola ari zareten lanean.

Euskal Herriko finantziazioarekin gauzatzen ari gara programak, Medicus Mundirekin elkarlanean. Sexu heziketa integralari dagokionez, irakasleak ahaldunduz ditugu, horiek sexu heziketa integrala curriculumaren arlo guztietara zabaldutakoak. Hori erronka bat izan da guretzat, herrialde bezala sexu heziketa tutoretza orduan egin baita soilik. Gu harago joan

gara, arlo guztietara zabalduz eta nerabeen haurdunaldiaren aurrean alternatibak ematen saiatuz, baita hiesaren aitzinean ere. Iaz hasi genuen indarkeriaren prebentzioa lantzeko programa ere. Nerabe eta gazteengan jartzen du fokua, adin horietan hasten direlako harremantzeko modu horiek eta uste dugulako hor landu behar dela prebentzioa. Indarkeria matxista hor hasten da eta nerabeak ez badu bere autonomiarako eta ahaldunderako baliabiderik eduki, eta ez badu arazoa identifikatzen, arazoak segitu egiten du eta feminizidioak ere gertatzen dira.

Feminizidio tasa handiak ditu Peruk, ezta?

Urtean 260 feminizidio gertatzen dira batez beste. Lanean ari garen eskualdeetan, sei-zazpi. Amen heriotzak ere hor daude. Arazo horrek sexu eta ugaltze eskubideekin du zerikusia. Eskubideok murriztuta daude. Alde batetik, sexualitateari buruz informazio gutxi dago. Bestetik, nerabeek formazioa eta beren eskubideez jabetzea falta dute. Heziketa sexista eta matxista dago. Programa honetan ikusi dugu irakasleek ez dutela formaziorik akademikotik harago. Matematikako irakasleak poligonoa ebazten irakasten du, eta komunikazio irakasleak testu bat irakurrarazten du testu horrek desberdintasunezko harremanak baieztatzen dituen inporta gabe. Zailtasun bat da hori irakasleak ez duelako harago begiratzen. Sexualitatearekin eta garapen pertsonalarekin lotutako gaiak ez daude beren agendan. Antolakunde bezala formazio kurtso bat eskaintzen diegu irakasleei, beren lan akademikoa egiteaz gain, ikasleei erabakiak hartzen eta aipatutako arriskuak ekiditen laguntzeko jakintzak eman diezazkieten.

Lan hori ikasgai guztietara zabalduko litzateke.

Horretan gabilta, hain zuzen. Baina inguru hagitz txiki batean. Herrialdeak, dagoen bezala, ez dio arazo horri heltzen. Are gehiago, egoera hagitz konple-

ELGA PRADO

PERUKO MANUELA RAMOS MUGIMENDU FEMINISTA

Gaztetxoen artean, bereziki «on line» espazioetan, gertatzen den indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko ikerketa bat hasiko dute Perun eta Gipuzkoan.



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Egoera hagitx
konplexuan gaude,
talde
kontserbadoreen
indarragatik.
Sektore
ebanjelikoak eta
katolikoak elkartu
egin dira. Urte
honetarako genero
ikuspegia barne
hartuko zuen
curriculum nazional
berria zegoen
aurreikusita. Eta
horren aurkako
mobilizazio bat
dago»

xuan gaude orain, talde kontserbadoreen indarragatik. Sektore ebanjelikoak eta katolikoak elkartu egin dira. Urte honetarako genero ikuspegia barne hartuko zuen curriculum nazional berria zegoen aurreikusita. Eta horren aurkako mobilizazio bat dago. “Nire umekin ez sartu” taldea sortu dute. Baliabide pila bat dituzte, Estatuak baino gehiago. Gai hauei buruzko kontzeptuak indargabetu dituzte. Adibidez, uste dute genero ikuspuntua lantzea ikasleak homosexual bihurtzea dela. Ematen duten berteze mezu bat da sexu heziketa integrala lantzea libertinajea sustatzea eta mundu guziaz sexu harremanak izaten hastea dela. Bestalde, homofobia izugarria dago. Une konplexuan gaude eta Hezkuntza Sailak urrats batzuk atzera egin ditu jada. Gatazka bat dago; talde bategen parekidetasuna defendatzen du baina beste talde bat, aunitzez indartsuagoa, presioa egiten ari da maila guztietan. Jendea bereganatzen segitu eta espazio politikoetan sartu nahi dute, berdintasun politikak, sexu eta ugalketa eskubideak jasotzen dituztenak, erretiratzeko.

Solas egiguzu bertze programaz, indarkeriaren prebentzioa lantzen duenaz.

Egia da herrialdeak aurrera egin duela politiketan. Indarkeriaren prebentziorako lege berri bat dugu, baina fokua biktimaren arretan jartzen du. Gure lana esperientzia batzuk sustatzen hastea da Estatuari erakusteko baliabideak erabiltzen ari dela biktimak artatzen, baina zer gertatzen da prebentzioarekin? Zer gertatzen da teknologiaren eraginarekin eta harremantzeko modu berrieekin? Perun eta Gipuzkoan egin behar den ikerketak azalduko du non gauden. Perun analfabetismo tasa altua da. Lan egiten dugun eremuan gurasoak analfabetoak dira. Umeek ez dute Internetik etxean, baina bai kabina publikoetan. Gurasoei erraten diete gauza bat egitera doazela baina ez dago inongo kontrolik eta iragazkirik. Joan den urtean nerabe bat en gainatu eta bortxatu zuten bere



«Historia egin zuten emakumeei begiratzea, printzesen ipuinetatik harago so egin eta bertze zerbait izan gaitezkeela ikustea iraultzailea da»



kideek. Adingabeak ziren. Denak bakarrik bizi ziren eta ez zegoen kontrolik eta informaziorik. Nerabea hil egin da. Bikotekidea-renganako kontrola hasten da, sexualitatearena, gorputzarena... Hori lantzen ari gara. Ikerketa eginda gomendio batzuk ematen ahalko dizkiogu gure herrialdeari.

Perun egoera desberdina da zonaldeen arabera, ezta?

Eskualde bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta, hortaz, programak errealitate bakoitzera egokitzen joaten gara. Oihanean, estereotipo eta estigmatik lantzen dira. Ni bizi naizen lekua, mendikatea, aunitzez kontserbadoreagoa eta itxiagoa da. Jendeak bi jarrera ditu bakarrik: katolikoak dira, edo ebanjelikoak. Bi taldeok bat egiten dute eta gu bezala pertsonen eskubideen alde dagoen jende gutxi dago. Etengabe borrokan ari gara, bereziki LGTBI komunitatea babestuz, jazarriago baitago.

Medicus Mundi Gipuzkoak, Farapi Koop. Elkarteak eta EHUK ikerketa bat plazaratu zuten

San Valentín Eguna zela-eta. Bertan nerabe eta gazteen artean maitasun erromantikoak indarkeria matxistaren sorreran eragina duela azaltzen zen. Zein iritzi duzu horretaz?

Hala da, han ere bai, gertatzen dena da ikusezin egiten dela. Hori argitara ateratzen ari gara. Pertsonen inkontzientean dago. Gurea bezalako kultura matxistagoetan are gehiago: musika, mezuak... Dena hor dago eta emakumeek ezin izan dute erabateko autonomia garatu, ez dituzte etengabe ematen diren kodigo horiek identifikatzen. Hori ikusten dugu feminizidio kasuetan. Bikote harremana eraikitzen joan da “niretzako zara”, “zu gabe ez naiz ezer” eta halako mezuekin. Kolektibitatearen inkontzientean dago hori eta ez da hautsi. Horretan gabiltza. Gai hau ez da agendan egon. Antolakunde bezala urtetan emakume helduengan eta indarkeriaren tratamenduan jarri izan dugu fokua. Orain horri buelta eman eta prebentzioan egiten ari gara indarra. Nerabe eta gazteekin ari gara lanean. 100.000tik 96 ama hiltzen dira haurra izatean.

Tasa jaitsi dugu pixka bat (103tik), baina altua da oraindik. Osasun zerbitzuak ez daude eskuragarri nerabeentzat, eta eskolan ez diete informaziorik ematen. Are gehiago, Estatuak ez du informaziorik ematen ikuspuntu laiko batetik. Adibidez, ez dago bermatua nerabeek antisorgailuak eskuragarri izatea. Orduan, gurasoek ez badute informaziorik, eskolan sexualitatea kuestionatu eta perbertsioaren sinonimotzat hartzen bada, osasun zerbitzuek ere ez badute informaziorik ematen, non topatu? Hor daude ondorioak: nerabeen haurdunaldiak, hiesa, amen heriotzak...

Liman, Pamplona Altako El Nazareno eskolan nerabeen haurdunaldiak %15etik zerora jaitzea lortu duzue.

Bai. Lehen ikastetxeetara joaten ginenean gure lana kuestionatu egiten zen, libertinajea sustatzen genuela erranez. Baina konturatzen ari dira ezetz eta eskoletan erran digute: «zuek sartu zinetenetik ez da neraberi haurdun gelditu». Esperientzia horiek aukera ematen digu-

te Estatuari frogatzeko prebentzioa landu behar dela eta posible dela gauzak aldatzea.

Baina bertze aldean daude indar kontserbadoreak.

Kardinalaren ahotsa legea da. Emakume bat salatzerako joaten bada, poliziek, epaileek, «zergatik jo ote dizu senarrak? Zer egin duzu?» galdetzen diote oraindik. Errudun egiten zaituzte norbaitek bortxatuz gero: «Zer egiten zenuen ordu horretan ka-lean? Zergatik jantzi zenuen gona motz hori?».

Egoera horretan, zertarako salatu?

Pentsa, feminizidio kasu piloa babes neurriak zituzten emakumeenak izan dira. Benetan egoera larrian daude emakumeak, Estatuak ez dituelako beren eskubideak bermatzen. Aunitzek ez du salatzeko, ez dagoelako babes sarerik eta etxera itzultzean senarrak berriro kolpatzen delako salatzeagatik. Inguru sozialak erraten dizu hori bizitzaren eta emakume izatearen parte dela. Ikaragarria da. Horregatik, sustatzen ari garena da egoera

horietara ez iristea, emakumeen autonomia bultzatzea eta indarkeria egoerak identifikatzea.

Noiz eta non egingen duzue «on line» espazioetako ikerketa?

Lau-sei hilabetetan egingen dugula kalkulatu dute. Martxan jartzeko erremintekin itzuliko gara Perura. Gure lan eremuetan egingen dugu, Ayacucho, Ucayali eta Limako eskualde zehatz batzuetako hamabost eskolatan. Hainbertze behar dituen herri batentzat gutxi da, baina Estatua ez da bere lana egiten ari. Guk egiten duguna da Estatuari erakutsi posible dela lan hori egitea. Hezkuntza Sailak gure lana ikusi du eta egiten dugunari adi dago. Etengabeko erronka da. Antolakunde feminista bat gara talde kontserbadore indartsua duen eskualde batean. Euren dioten bezala, “ordena naturala” aldatzen dugunak gara. Beti ari gara borrokan talde guztiekin. Ekarpenak egiten ere bai. Historia egin zuten emakumeei begiratzea, printzesen ipuinetatik harago so egin eta bertze zerbait izan gaitezkeela ikustea iraultzailea da.



IKUSMIRA

MODIREN INDIA BERRIARI ZAHAR USAINA DARIO

Txina eta bere bilakaera mundu guztiaren ahotan dagoen honetan, Asiako beste erraldoian gertatzen denari ia kasu izpirik ere ez diogu egiten Mendebaldetik. Aurreko astean bertan, baina, Narendra Modi lehen ministroaren BJP alderdi hinduistak izugarrizko emaitzak lortu zituen eskualdeko hauteskundeetan. 200 milioi biztanle dituen Uttar Pradesh estatuan, adibidez, eserleku hiru laurdenak eskuratu zituen, Indiaren independentziazatik ikusi gabeko emaitza. 2019ko



Chandan KHANNA - Prakash SINGH | AFP

hauteskundeei begira aurrerapauso erraldoia eman du lehen ministroak, bere hautagaitza sendotuz. Jende askoren miresmena lortu du Modik, eta bada jada Indira Gandhi eta Jawaharlal Nehru historikoekin alderatzen duenik. Azalpena honakoa da: politika neoliberalak bultzatzerekin batera, erlijio hinduista Indiaren ardatz bilakatzearen aldeko apustu irmoa egin du Modiren Gobernuak, gutxiengo musulmana gutxietsiz. Horrek arrakasta eman dio «Txiroen Mesias» gisa agertzen den Modiri. India berriari zahar usaina dario.

Dabid LAZKANOITURBURU

ETIOPIA

Gobernuari egotzi diote 113 hildako eragin dituen zabortegi-irristatzea

 JENDARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

Hazkunde ekonomiko aipagarria izan du azken urteotan Etiopiak, baina populazioaren zati handi batek pobrezia erdian bizitzen jarraitzen du, Addis Abeba hiriburuko zabortegi handi eta zaharrenean izan berri den tragediak agerian utzi duenez. Gobernuari berari egotzi diote 113 hildako utzi dituen zabortegi-irristatzea.

Sekulako hazkunde demografikoa erregistratzen ari den Addis Abeba Etiopiako hiriburuak Gobernu bera zi-priztintzen ari den tragedia jasan zuen joan den martxoaren 11n: 113 hildako. Agintariak lekuko ezerosoak izutzen saiatu dira, baina gero eta garbiago dago Exekutiboak ez dituela

gauzak behar bezala egin, «tragedia saihesteko modukoa baitzen», Amnesty International gobernuz kanpoko erakundeak salatu duenez. Zemed Derib poz-pozik zen zabortegi-irristatzea hasi baino pixka bat lehenago. Jolasteko irrikatan, bere ahizpak konbentzitu nahian ari zen etxolatik irteten zitezen. Berehala, baina, poza izu bihurtu zen. Auzokoen

Hondeamakinak eta erreskate taldeak lanean hilaren 12an, tragediaren biharamunean.
Zacharias ABUBEKER | AFP

garrasiak entzunda, korrika hasi beste aukerarik ez zuen izan neska gazteak. Etxe barruan utzi zituen ahizpak, eta, une honetan, tragediak utzitako biktima zerrendan ageri dira. «Ihes egin nuen eta berriz atzera begiratzeko aukera izan nuen, ez zegoen ezer, gauza guztiak belztuta zeuden», esan die kazetariei beltzez jantzitako herritarrek, eskuetan Yeshi Beyene amaren erretratua duela. Mulate Debebe izeneko emakumea bere bi seme-alabak bainatzen ari zen larunbat gau hartan hondamendia gertatu zenean, The Associated Press nazioarteko berri agentziari erietxe batean etzanda zegoela kontatu zionez: «Hasiera batean sekulako hotsa entzun nuen, beldurtzeko modukoa. Kanpo-


tik zetorren. Beraz, senarrari esan nion kanpora atera eta zer gertatzen ari zen begiratzeko. Zarata gero eta handiagoa zela iruditu zitzaidan eta etxetik korrika ateratzen saiatu nintzen, baina bazter guztietan zegoen zaborren artean harrapatuta geratu nintzen. Hortik aurrera gertatutakoa ahaztuta daukat. Ospitaleko ohe honetan esnatu nintzela dut gogoan, besterik ez. Nire senarra eta seme-alabak non diren ere ez dakit oraindik».

SUNTSITUTAKO ETXOLAK

Solomon Bussa Alert erietxeko zerbitzu medikuen buruak jakinarazi du Zemed Deribek eta Mulate Debebek kontatu dutena beste askori ere gertatu zitzaiela, eta etxola ugari erabat suntsitu zituela irristatzeak. Zaurituak hartu zituen ospitaleko medikuak erantsi du biktima gehienak emakumeak eta haurrak izan zirela.

Koshe izeneko zabortegiko zati handi bat eraitsi egin zen, eta inguruetan eraikitako etxola batzuk hondakinen azpian zapalduta geratu ziren. Zazpi senide galdu zituen Deribek, horien artean hiru ahizpa txiki eta oraindik izenik ere ez zuen jaioberri bat. Biktima gehienak zabortegian bertan bizi ziren herritarrek ziren. Bertan ematen dute eguna, zaborren artean saltzeko moduko zerbait topatu nahian. *Koshe* hitzak “zikinkeria” edo “hautsa” esan nahi du amhareraz, Etiopiako hizkuntza nagusian. Izen hori jarri zioten herritarrek ia lau milioi biztanle dituen hiriburuko zabortegi zaharrenari.

Astebete baino gehiago egin zuten lanean erreskate taldeek hondakinen artetik herritarrek ateratzeko. Alfer-alferrik ordea. Ilargi erdiaren itxura duen pitzadura utzi du hilaren 11ko istripuak. Ez daude urruti biktimen lagunak eta senideak, Gobernuak bidalitako polizien begiradapean.





Kazetariak izutu nahian, ahal duten guztia egiten dute agenteek. AFP agentziako kazetari bat, hildakoen etxeak elkarriketatzen ari zela, bideoak eta argazkiak ezabatzeraz behartu zuten poliziek.

Gobernua eta Kosheko biztanleak ez datoz bat. Exekutiboak iaz zabortegia beste puntu batera eramateko asmoa agertu zuen, baina eremu berriaren ondoan bizi direnek beren haserre adierazi zuten eta azkenean agintariekin atzera egin zuten, Koshekoen kalterako.

Diriba Kuma Addis Abebako alkateak emandako datuen arabera, garai batean 300.000 tonna hondakin eramaten ziren Kosheko eremura. Ofizialki Reppi deitzen dioten zabortegia hiriburuko zaharrena da, orain 50 urte hasi baitziren hondakinak bertara eramaten.

Zabortegia beste leku batera eramateko plana zapuztuta ikusi zuenean, Hailemariam Desalegn lehen ministroak Kosheko hondakin mendiaren tontorra berdintzeko agindu zuen, gainean biogas zentral berria eraikitzeko asmoarekin. Tankerako

Goiko irudian, Kosheko zabortegia martxoaren 12an, irristatzeak makina bat herritar harrapatu ondoren. Eskuinean, Zemed Derib bere amaren erretratuarekin. Zacharias ABUBEKER | AFP



azpiegitura proiektu asko jarri ditu abian Gobernuak, erabateko pobrezian bizi den herrialde bat garatzeko gauza dela erakutsi nahian, azken urteotako hazkunde ekonomiko handiak ez baitu lortu etiopiar gehienak egoera negargarri horretatik ateratzea. Baina agintarien jau-

regitik begiratuta oso ideia ona zirudien proiektua beste era batera ikusten dute orain Koshekoek: konbentzitutak daude tontorra lautzeko lanek presio gehiegi egin zutela hondakin pilaren saihetsean, eta horrek eragin zuela tragedia.

Gobernuak ezetz erantzundie, biogas zentrala eraikitzeko lanek ez zutela istripuarekin zerkusirik izan alegia, baina ikerketa bat abian jartzeko agindu du. Etiopiako bertako eta AEBetako adituei eskatu zaie lana.

Edonola ere, begirale guztiek nabarmendu dute pobrezia dagoela hilaren 11ko tragediaren atzean, bizirik jarraitu ahal izateko hondakinen artean saltzeko moduko gaiak eta objektuak topatu beharra izatea, eta egoera hori herrialde askotan dute, baita industrializatueta ere.

Etixerik gabe geratu ziren biktimen sufrimendua arindu nahian, Exekutiboak esan du horientzako lekuren bat prestatuko duela. Baina Zemed Deribek ez du horrelako laguntzarik oraindik ikusi eta kazetariei esplikatu die bizirik atera diren senideek nora joan jakin gabe

jarraitzen dutela. Ideia bera errepikatzen du etengabe, bere onera itzuli ezinik dabilela aditzera emanez: «Lokatz bihurtu zen, dena lokatz bihurtu zen».

«AXOLAGABEKERIA LARRIA»

«Etiopiar agintarien axolagabekeria larriaren begi bistako kasu baten aurrean gaude», adierazi du Amnesty International gobernu kanpoko erakundeak. Muthoni Wanyeki erakundeko eledunak oso gogor salatu du Gobernuaren jardura: «Hondamendia saihesteko modukoa zen eta Etiopiako Gobernua da erantzulea. Gobernuak bazekien zabortegiak ezin zutela hondakin gehiago hartu eta hala ere leku hori erabiltzen jarraitu zuen. Gainera, ehunka lagunek ondoan bizitzen jarraitu zezaten baimendu zuen».

Ekintzailearen iritziz, Gobernuak ez du babestu «etxebizitza duina eta itxurazko lanpostu bat izateko herritarren eskubidea, eta, ondorioz, pertsona horiek, emakumeak eta ume txikiak kasu askotan, hain leku arriskutsuan lan egin eta bizi beste erremediorik ez zuten».



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Zer egiten duzu zuk?

Atzean utzi ditugu suharri eta transhumantziak, orain «diru» izena eman diegun metal eta paper zatiak elkartrukatzan ditugu, oinarritzko gordele-

ku zein elikagaiak geureganatzeko.

Diru izenekoa lortzeko hainbat era garatu dira, horietako bat lanaren bitartezkoa. Gizakia, espezie bezala, sortzeko duen ahalmen handiagatik ezaguna da, eta, dirua asmatu zuen legez, berau irabazi ahal izateko “lana” asmatu zuen. Horrela, oinarritzko beharrak gehituz joan ziren, eta, beharrok asetzeko behar adina diru izateko, noski, lan egitea beharrezkoa bihurtu zen. Behin katea sortuta, gizakiaren bizitzaren herena baino gehiago lan orduak betetzen dute. Berez, gure bizitzaren zati oso handi bat lanean igarotzen dugu. Pertsona batek astero lanean ematen dituen ordu kopuruaren batez bestekoa berrogei ordukoa izanik, galdetu al diozu noizbait zure buruari zer-nolako eragina duen horrek zure bizitzan, bai osasunari dagokionez bai harreman mailan?

Egunero ordu berdinean esnatzen gara, leku berdineran joan eta ekintza berdinak egiteko. Ardura eta erantzukizunak bizkar gainean izanik, berauek betetzeko kontratuz dagozki- gunak baino ordu gehiago sartzen ditugu askotan. Zalantzarik gabe, errealitate bakoitza ezberdina da eta egoera ekonomiko anitzak daude. Hori dela eta, pertsona batzuek etxeko beharrak asetzeko gauza batean baino gehiagotan egiten dute lan. Hori, nahitaez, atsedean, harreman eta aisialdiaren kalterako izaten da.

Aipatutako egoera denboran zehar luzatzerakoan, higadura fisiko zein mentala nabaria egiten da. Horren seinale izaten da umore txarra maizago nabaritzea edota gure gorputza azkarrago nekatzea bai fisikoki bai mentalki. Burua, nekatuta dagoenean, ez baita hain eraginkorra. Puntu horretan, frustrazioak gora egiten duten bitartean, asertiboak izateko gaitasunak behera egiten du.

Alde batetik, ordenagailu, smartphone eta tabletak bezalako gailuek bizitza errazten digute, besteekin harremane-

tan egotea ahalbidetzen dutelako. Baina, beste alde batetik, ordea, beraien erabileraren kudeaketa desegoki batek estresa areagotu eta osasunerako ondorio kaltegarri eta negatiboak ekar ditzake. Horrela, atsedean eta aisialdirako erabili beharko genukeen denbora bukatu gabe utzitako mezuak bidaltzen, zirriborroak berridazten edo hurrengo eguneko bileraren azken zertzeladak lankidearekin adosten xahutzen dugu. Jakina teknologia berriek eskainitako berehalako komunikaziorako aukerak abantaila handia dakartela, baina, lana etxera eramaten dugunean, esklabo bihurtzen gaituzte. Teknologia berriek, orokorrean, eta sare sozialek, zehazki, denbora kentzen digute eta lan eta bizitza pertsonalaren arteko limiteak ezartzea zailtzen digute.

Ezagutzen dugun lan mundua hain da lehiakorra, gure buruari benetan atsedean hartzea ez diogula baimentzen. Pertsona gutxi dira denbora librean izan eta atsedenerako espazio bat bilatzearen garrantziaz kontziente. Erlaxatu eta burua lana ez den beste zerbaitetan murgiltzeak eguneroko kontua izan beharko luke, kontzienteki bilatu eta aukeratzan duguna alegia. Ez

genuke oporren zain egon behar. Kontua da, tamalez, ezer egin gabe bizitzen ez dakigula, eta, lantokian ez egon arren, etengabe eginbeharrak jartzen dizkiogula gure buruari. Gaur egun nagusi den kulturak bidalitako mezua oso argia da: munduan izateko lanpetuta egon behar dugu. Gero eta gauza gehiago egin, orduan eta balio handiagoa emango zaigun pentsamendua guztiz zabaldua dago.

Errutinak aldatzeak, adibidez, atsedean hartu eta deskantsatzeko tartea bilatzeak, gure eginkizunetan lagunduko gaitu. Lanarekin lotzen ditugun “erritualak” eraldatzea lagungarri izango zaigun aukera paregabea da; iratzargailuaren soinurik gabe esnatzea, egunero tarte batez telefono mugikorra itzaltzea edota zerbait berria egiten saiatzea adibide batzuk izan daitezke, beste batzuen artean. Bestalde, gure etxea gure lantokia izanez gero, eginbeharrak eta berauek burutzeko ordutegi bat zehaztea ezinbestekoa izango da atsedenera lekua egin ahal izateko. Eta zuk, kontaiezadazu, zer egiten duzu lanari buruzko pentsamenduetatik deskonektatu eta zure atsedean tarteari bilatzeko? •

saioaaginako@gmail.com



Pertsona gutxi dira atsedenerako espazio bat bilatzearen garrantziaz kontziente.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Toki ezin hobea hartuta, bidea libre du EH Bilduk

Duela bost urte eta bost hilabete euskal ager-toki politikoa goitik behera aldatu zenean, gauza batzuk askoz arinago konponduko zirela pentsatzen genuen, jakina: esaterako, bi aste barru bururaino helduko den ETaren armagabetzea edota bihar etzi baino hobe bideratzen hasi beharko litzatekeen presoen auzia. Baina, aldi berean, trukean-edo, oso urrutiko ortzimugan ziruditen zenbait gauza denok uste baino lehenago gertatu dira: hala nola, bi aldeetako biktimak zenbaitetan elkarrekin ikustea edota Nafarroan erregimen espainiarzaleak boterea (ia botere guztia) galdu izana. Eta guztion begien aurrean baina ia oharkabean emeki-emeki gauzatzten joan diren aldaketa sakon horien artean, bada EITB Focus inkestak azaleratu berri duen bat: ezkerreko independentismoak bere historia osoan izan duen kokapen politiko onena eskuratu du.

Inkesta horren trataeran, EAJren nagusitasun ukaezina nabarmendu da lerroburu gehienetan. GARARI, aldiz, deigarria egin zaio PPren posizioa okerra; marka da gero Estatuko alderdi bozkatuena dena EAEko biztanleen %69k inoiz ez luketela bozkatuko egiaztatzea! Baina bi datuok beste zenbaki harrigarriago bat estali dutelakoan nago. Izan ere, galdera berberaren aurrean ("Zein alderdiri ez zenioke inoiz bozik eman-go?"), herritarren %10,2k baino ez dute EH Bildu aukeratu, hamarretik batek baino ez dio bizkarra ematen balizko hautu horri. Errazkeria irudi liteke hurrengo ondorioa, baina, azken hauteskundeetan herritarren %10,1ek PPren botopapera hartu zutela gogoratzen badugu, ekuazioa horrela osa liteke: Mariano Rajoy eta Alfonso Alonsoren boto emaileek izan ezik, gainerako denek ez dute guztiz baztertzen egunen batean –gaur bertan, laster, epe erdira edo epe luzera– ezkerreko independentismoari atxikimendua ematea, eta ez dute behintzat ezkerreko independentismoa etsai nagusitzat. Dударik gabe, EAJk zein Elkarrekin Ahal Duguk kontrako gutxiago dituzte (%1 eta %3,3 hurrenez hurren), baina ez dago konparatzerik: malgua oso da jeltzaleen aukera (eta irabazlea) eta zuri-zuria *podemitarrena* (aurrekaririk gabea); ezkerreko abertzaleena, aldiz, jatorriz zikindua eta helburuz maltzurra, ia deabruak berak erditua, temati-

saldu digutenez 8oko hamarkadetako itun haietatik hona, eta ez soilik Madriletik, baita Gasteiz eta Iruñetik ere.

Ez da datu isolatua, EITB Focus inkestako gainerako aldagaiek berresten baitute aurrekoa. Azken lau urteotako indar politiko bakoitzaren bilakaera baloratzea eskatu denean, +5,1eko puntuazioa lortu du EH Bilduk, EAJren +9,2tik ez oso urrun, Elkarrekin Ahal Dugurekin alderatuta dezente hobea (-5,4), zer esanik ez PSE zein PPko emaitza patetikoekin alderatuta (-48,5 eta -56,9). Begirada liderrengan pausatzen badugu ere, albiste onak datozkio koalizioari. Eusko Legebiltzarreko lanaren balorazioan Maddalen Iriarte ageri da bigarren (6,30), ia-ia Iñigo Urkulluren pare (6,39). Eta «nahiago duzun politikoaz» galdetuta, Arnaldo Otegi bigarren atera da alde handiz; bai, duela urtebete kalera atera zenean batzuentzat oraindik «terrorista» eta beste batzuentzat «modaz pasatutako politiko zaharkitua» zen Otegi bera.

Zerbait ondo egin den seinale dira EITB Focusen datuak. Erroak galdu gabe, mutur batean gotortuta gelditzeko arriskua saihestu du EH Bilduk (eta ez zen horretarako sirena kantuen faltarik)

Zerbait ondo egin den eta egiten ari den seinale da inkesta. Bereziki, erroak galdu gabe (helburu eta aldarrikapen bat bera ere ez da bidean utzi), mutur batean gotortuta gelditzeko arriskua saihestu du EH Bilduk (eta ez zen horretarako sirena kantuen faltarik). Aldaketa erradikalari eusten dio, baina, aldi berean, erdi-erdian paratu da. Ditzosozko hauteskunde hegemoniaren obsesioa gaindituta eta autokonplazentziaren arriskua ere alboraturik, bi tranpa horien artean bide zabala du irekita. Are gehiago EAJ-PSE-PPren artean nabarmen erpin bakarra osatzen ari denean eta Ahal Duguren izkinan arestian zirudiena baino indar gutxiago bildu den honetan. Bitxia iruditu arren, hauteskunderik gabeko tarte luze honetan badu EH Bilduk aurrera egiteko aukera paregabea, oso hurbil duen gehiengo baterako politika eraldatzaileak egiten eta eragiten asmatzen badu. •

MINTZALAGUNA

Euskaraz hitz egiteko lagunen sarea osatu du Mintzalaguna egitasmoak

Tabernaren batean biltzen dira, edo arte erakusketa batera, mendira, edo sagardotegi batera joaten dira elkarrekin. Mintzalagunak dira, ondo pasatzeko, patxadaz eta gustura hitz egiteko elkartzeko direnak. Euskaraz hitz eginez. Izan ere, Mintzalaguna egitasmoa aisialdiko jarduerak dira. Bospasei laguneko taldetan bilduta, astean ordubetez, euskaraz aritzen dira mintzalagunak lagun giro atseginean, denek parte hartzeko moduan. Halaber, gustuko dituzten askotariko ekintzetan parte hartzen dute aldian behin. Mintzapraktika taldeak kideen zaletasunak, adina, bizitokia eta ordutegiak kontuan hartuta antolatzen dituzte Topaguneak koordinatzen dituen hainbat elkarte.

Mintzalagun proiektua duela hogeitau urte abiatu zuen Bagera elkarteak, Donostian. Helburua euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez daukan jendea hitz egiteko ohitura daukan jendearekin elkartzea da, baina euskaldun zahar eta euskaldun berri bereizketa saihestuta.

 **EUSKARA** / Xabier Izaga Gonzalez

Euskaraz egin nahi eta ezin. Ez jakiteagatik... edo norekin egin ez izateagatik. Lehenengo kasuaren erremedioa euskaltegia jotzea da; bigarrenarena, Mintzalaguna programan parte hartzea. Milaka mintzalagun daude Euskal Herrian, proba egiteko hasi eta behin eta berriz lagun arteko solasetara itzultzen direnak



Arrate Ilaro Topaguneko koordinatzaileak emandako datuen arabera, 6.000 mintzalagun daude, 1.100 taldetan banatuta. Emakumeak gehiengo zabala dira; hartara, mintzalagunaren profila 42 urteko emakumearena da, euskara praktikatu beharrez izena emandakoa. Hori bai, askotariko lagunek jotzen dute Mintzalagunak programara: ikastolan ikasi eta urte askoan hitz egin ez dutenak, beren egunerokoan lankideekin, kuadrillan eta familiarekin euskaraz egiteko aukerarik izan ez eta euskaltzaileen sarean murgildu nahi dutenak, euskaltegian izandako euskaldun berriak, «erabileraren saltoa» falta duten herritarrak, haurrak izan dituztenean euskaraz egiteko gaitasun mugatua dutela ikusi eta seme-alabekin egiteko hizkuntza berreskuratu beharra dutenak... Horiekin batera, noski, praktikatu behar dutenei laguntzeko izena ematen dutenak ere badaude, mintzalaguntzaileak, hain zuzen. Mintzalaguntzailearen zeregina, euskaraz egiteko ohitura eta, beraz, erraztasun handiagoa duenez, eredu izatea da, edo taldearen jarduna moteltzen bada, elkarrikteta bideratu eta hizkuntz zalantzaren bat argitzea,

MINTZALAGUNAK MINTZO

Asteartero, 18:30ean, Gasteizko Alde Zaharreko Querida Maria taberna biltzen dira Anuntzi, Mariasun, Martin, Mari Jose, Maite eta Mari Karmen. Azken honek gaur ez dela etorriko idatz die, gaixorik dago eta. 42 eta 53 urte bitarte dituzte. Berehala hasi dira taldearen nondik norakoak, zer eta nola egingen duten kontatzen. Talde honek ordubeteko saioa ia beste ordu batez luzatu ohi du.

«Berri samarrak» dira. Martin mintzalaguntzaileak bezala, lehen urtea dute denek. Ondo moldatzen direla ematen du. Saioak ez omen dira denbora-pasa hutsa, ikaskuntzaren osagarri baizik, baina oso gustura joaten dira, bete-behartzat hartu gabe. Mariasunek dio ez dela ebaluazio batean bezala sentitzen, askeago baizik, eta Maitek «taldea jatorra» dela gehitu du. Bat datoz denak. Maitek jende «desberdina» ezagutu duela dio, eta Anuntzik gai desberdinez hitz egiteko aukera ere topatu dutela. Taldekideekin «txipa»

aldatzen omen dute, hizkuntzaren bidezko identifikazioa eginda, «hauei euskaraz egitea baino ez zait ateratzen», dio Anuntzik.

Taldetik kanpo ez dute ia inorekin euskaraz egiteko aukera; gainera, lotsagatik edo beldurragatik, gehiago kostatzen zaie euskaraz egitea, taldean hartu duten konfiantzaren faltan.

Gehienek euskaltegian jakin zuten Mintzalaguna programaren berri, edo Hizkuntza Eskolan. Mari Joseri ahizpak esan zion talde batean zegoela, eta oso pozik zego-

ela. Berak euskaraz hitz egin nahi zuen eta programan hastea erabaki zuen. Euren ere lagunei eta lankideei esaten omen diete mintzalagun taldean daudela.

Martinek dioenez, taldeetan batzuek asko hitz egin eta beste batzuek isilik egiteko joera izaten dute. Horregatik bera hori orekatzen saiatzen da, gutxien egiten duenari bide emanez. Pozik ageri da: «Denbora gutxi daramate eta nire ustez asko askatu dira, konfiantza hartzen joan diren neurrian». Denek nabaritu omen dute aurrera egin dutela.

Beren euskaltegi-tako hainbat lagun hizkuntz eskakizunak lortu beharrean omen dabilta, eta denetarik iritziak agertu dira horren inguruan, esate baterako, helburu bakarra hori izatea

penagarria dela, irakaskuntza horretara soilik bideratzea. Ondo dago hori ere, baina ez hori bakarrik.

Martin lanbidez itzultzailea da administrazioan. Euskaltzale sentitzen da –«edo hizkuntzaren kontzientzia bizia daukat, nahiago baduzu»–, eta aspalditik pentsatzen omen zuen zer-bait gehiago egin zezakeela euskararen alde.

Mintzalagunek bezala, berak ere asko jasotzen duela dio. «Euskararen mundua, tamalez, oso endogamikoa da oraindik eta Mintzalagunak aukera ematen dit beste euskaldun mota batzuk ezagutzeko, ni bezain errealak direnak. Eta, jakina, jendeari laguntzeko aukera izatea eta jendearen esker ona jasotzea opari

batez ere hiztegiari dagokionez, baina argi izanda ez dela irakaslea. Helburua komunikazioa da.

Datuok Hego Euskal Herriko mintzalagun talde guztiei dagozkien. Izan ere, 2014an, Euskaltzaleen Topaguneak, AEK-k eta *on line* aritzeko Mintzanet egitasmoa kudeatzen duen Marara taldeak mintzalagun egitasmoak indartu eta haietako parte hartzaileak euskaldunen mugimenduan txertatzeko hitzarmena sinatu zuten. Edorta Lopez AEK-ko arduradunak dioenez, Euskal Herriko biztanleriaren %80 biltzen duten herrietan dago jada zabaldua programa. Biztanle-dentsitate txikiko herrietan, hori bai, parte hartzeko aukera txikiagoa da. AEK-k egun Topagunearekin elkarlanean dihardu, eta eurekin batera herri erakundeak –EAEko eta Nafarroako gobernuetatik tokiko administrazioetara–, euskaltegiak, hizkuntza eskolak, EHIGE guraso elkarteak... aritzen dira. Programan ahalik eta jende gehienak parte hartzea da helburua, eta euskaltegi guztientzat berebiziko garrantzia du, jakina.

Taberna batean kafea hartzeko biltzea ohikoena bada ere, saioak pixkanaka hainbat ekintzatar



Hainbat ekintzatan parte hartzen dute mintzalagunek. Goian, sukaldaritza tailerra. Ezkerrean, mintzapoteoa. GAUR8

bideratzen ari direla dio Edorta Lopezek. Talde asko eskulana egiteko, mendira joateko, kirola egiteko edo sukaldaritza aritzeko elkartzen dira.

Iparraldeko dinamika pixka bat desberdina da, bertako bizi-moduaren, giroaren arabera. Kultur eta aisialdiaren inguruan antolatzen da batik bat programa, eta ez horrenbeste tabernen

inguruan. Mintzalagun taldeak batez ere Lapurdiko kostaldean daude, herri handietan, herri txikietan, arestian esandako arrazoi demografikoak direla-eta, zailagoa baita taldeak antolatzea. Herriotan, baina, jende asko mintzapraktika talde batean egon daiteke mintzapraktika talde batean dagoen kontzientziarik izan gabe. Edonola ere, parte hartu

nahi duenak euskaltegi batera jo besterik ez du.

GOGOBETETZE MAILA HANDIA

Mintzalagunaren kudeatzaileek urtero gogobetetze inkestak egiten dituzte, eta, jaso berri duten azken laginaren arabera, gogobetetze maila handia da. Gustura daudela diote gehienek, eta pozik beren gaitasunaren eboluzioari dagokionez. Bestetik, mintzalagun sarea hedatuz doa, taldeko lagunen bidez beste batzuk ezagutu eta horiekin ere euskaraz jarduteko aukera sortzen baita, batez ere jendea maizago elkartzen den herri txikietan.

Mintzapraktikaren formula nahiko sinplea da. Lopezek dioenez, bi oinarri ditu. Lehena, ezagutza erabileraren bidez bultzatzea da. Euskara erabiltzeko gune lasai eta konfiantzazko bat sortzea da gakoa, gustura sentitzeko, presiorik gabe, hezkuntza eta lege zorrotzetatik kanpo. Bigarrena, motibazioak hizkuntza aldaketan duen eragina da, eta harreman afektiboak sortzea du ardatz, euskararekiko bizipen positiboa sortzea. Askotan gehiago praktikatu behar dutelako eman dute izena parte hartzaileek, eta, esan bezala, behar horretan hain-



Gasteizko Querida Maria tabernan elkartzen den mintzalagun taldea. GAUR8

bat da, bai arlo honetan bai beste edozeinetan».

GUSTUKO KONPROMISOA

Beste hainbat talde bezala, Iñaki, Marga, Pili, Mertxe, Karmele, Mari Mar, Manu eta Maite ere Gasteizko alde zaharreko taberna batean elkartzen dira, Txistu tabernan, hain zuzen, ostiralero 19:00etan. 36 eta 50 urte bitarteko mintzalagunak dira guztiak. Gehienak probatzera joan ziren, konpromisorik gabe. Eta gustatu zitzaie

ukatzerik ez dago, «berriek», taldeko azkenak diren Pili eta Mari Marrek, zazpigarren urtea baitute bertan.

Karmele da taldeko mintzalaguntzailea. IKAKo irakaslea da, eta bera ere proba moduan dagoela dio taldekideen barreen artean, dagoeneko «zazpi urtez proban». Oso argi du berea gidari papera dela eta ez irakaslearena. Baina mintzalaguntzailea beharrezkoa dela diote denek. Karmelek dioenez, oso noizbehinka akats nabarmenen bat zuzentzen

badu ere, hau «bere kabuz funtzionatzen duen taldea da. Ez duzu tiraka ibili behar». Hasieran zerbait prestatzen zuen saioetarako, baina berehala ikusi zuen taldeak ez zuela horren beharrik. Taldekideek diote Karmelek konfiantza ematen diela, eta hari entzunez asko ikasten dutela. Zalantza gutxi mahaigaineratzen omen dituzte, solasaldiak ez mozteko. «Irakaslea, euskaltegian», dio Karmelek. Baietz diote denek: «hemen, laguna».

Manuk txikitatik egiten du euskaraz, baina Bilbotik Gasteizera joan zenetik ez zuen egiten, ez zuen norekin hitz egin, eta konturatu zen gero eta gehiago kostatzen zitzaiola egitea. Pozik ageri da orain: «Ba-

Hasieran zaila omen da inor ezagutu gabe, eskuarki kontrolatzen ez den hizkuntza batean hitz egitera joatea; hala ere, ez dago zalantzarik zailtasun horrek merezi duela

bat arrazoi izan daitezke, baita gaitasun agiri bat lortzea ere. Baina ikasturte amaieran jarraitu nahi dutela esatean zergatia galdetzen dietenean, askok esaten dute gustura daudela, lagun talde euskaldun bat dutela. Teoriatik harago, ondo frogatua dute mintzapraktikak lotura emozionala sortzen duela, hizkuntzarekin eta taldearekin.

Gasteizen, Topaguneko kide den GEU Elkarrekin kudeatzen du Mintzalaguna programa. Elkarrekin kide Azaitz Unanuerengana jo dugu Arabako hiriburuko datuen bila. Ikasturte honetan 670 mintzalagun daude, 84 taldetan. Kasuistikari dagokionez, bat datoz Azaitzek emandako datuak Ilarok emandakoekin. Azaitzek, antolaketa lanetan hastean, gehienak ikasleak izango zirela uste zuen, mintzapraktika egin nahi zuten euskaltegiatako ikasleak alegia. Bestetik, mintzalaguntzailak euskararen militanteak izango zirelakoan zen. Baina profilak askotarikoak dira. Badago jende asko, eta Gasteizen argi ikusi dute, euskara ikasten sekulako ahalegina egin duena, edo bere garaian ikastolan ikasi zuena gurasoek hala erabakita, baina bizitza erdaraz garatu duena,

beste aukerarik izan ez duelako, lagunarteak, lan giroak... behartuta. Taldeetan beste euskal lurraldeetatik etorritako ikasle zein langileak ere badira. Normalean euskaltzaleak bultzatuta aritzen dira; edonola ere, taldeotan parte hartzeak jendea ezagutzeko bidea ematen du, baita Gasteizko bizitza ezagutu eta bertan integratzeko aukera ere.

Bat dator Azaitz, halaber, gogobetetze mailari dagokionez, Edortak esandakoarekin. Iaz programan zenbait urte daramatzatenei galdeketa egin zieten eta poz handia eman zien motibazio aldaketa ikusteak. Hasieran jaritzen diren helburuak askotan ez dira mintzalagun programan egoteko arrazoi nagusia behin hasi ostean. Gehienek erantzun zuten ondo pasatzen dutelako edo lagun berriak egin dituztelako jarraitzen dutela, motibazio hori sentimenera eramanda. Azken batean, kontu ludikoa da. Euskarazko kontu ludikoa.

Programak bi oinarri ditu. Lehenengoa, ezagutza erabileraren bidez. Bigarrena, motibazioak hizkuntza aldaketan duen eragina, harreman afektiboak sortuta

Mintzalaguna programaren matrikulazio kanpainaren kartela. GAUR8



Mintzalagun beterranoak, Txistu tabernan. GAUR8

noa, banoa». Irratitik jakin zuen Mintzalaguna programaren berri. Mertxek egunkari batean irakurri zuen, Iñakik euskaltegian jakin zuen, Maiteri lagun batek esan zion eta berak Piliri. Mari Mar ez da jada gogoratu ere egiten nola ezagutu zuen Mintzalaguna egitasmoa.

Hasieran zaila omen da horrelako talde batera joatea, inor ezagutu gabe, eskuarki kontrolatzen ez den hizkuntza batean hitz egitera... Hala ere, ez dago zalantzarik zailtasun horrek merezi duela lagun talde hau ikusita. «Hau poteoa bezalakoa da», «hona asteko gauzak kon-tatzera etortzen gara, lagun artean», diote. Iñakik dio berarentzat konpromisoa txikiagoa dela, parean bizi da eta. Izan

ere, konpromisorik gabe probatzen hasi baziren ere, konpromisoa hartu zuten behin gertatzea erabakita. «Konpromiso txiki bat, gustura betetzen duguna baina beharrezkoa».

Pili duela 25 urte hasi zen euskara ikasten eta erdi mailaraino iritsi zen, hizkuntz eskakizuna lortuta. Ondoren, alaba izatean, ez zekien nola adierazi bere maitasuna, nola transmititu emozioak euskaraz, eta egiteari utzi zion. Orain bilobekin euskaraz egiten du –«eta edonorekin»–, baina eurek ez dute nahi izaten, «beraiek euskara nik gaztelania bezala dutelako, lehen hizkuntza».

Aspaldi ezagutzen zuen Kar-melek Mintzalaguna proiektua, baina ez zuen astirik parte har-

tzeko. Ahal izan zuenean, ordea, izena eman zuen. «Buruan beharrik edo azterketarik ez izateak laguntzen du bestelako giro bat sortzen, positiboagoa, hurbilagoa euskararekiko». Eta gogoz joaten dela dio, «ilusioz, ikusten dudalako hitz egin nahi dutela hitz egin nahi dutelako, azterketa edota eskakizun batetik hara-tago, badutela euskaraz mintzatzeko gogoia helarazten didate; nolabait, ikasten inbertitu duten denbora eta egin duten ahalegi-na baloratu egiten dute eta euskarari bere garrantzia ematen diote. Gainera, gustura eta lasai aritzeko gune bat sortu dugu denon artean eta horrek jarraitzea animatzen nau. Eta taldeak duen jarrerak ere anima dezake parte hartzera».

Biztanle-dentsitate txikiko inguruek Mintzalaguna programan parte hartzeko aukera mugatuagoa dutela dio Edorta Lopez AEK-ko kideak. Hala ere, badute mintzapraktika egiteko beste aukera bat, inguru horietan ez ezik, munduko edozein bazterretan bizi direnek: Mintzanet, euskara *on line* eta doan praktikatzeko aukera. Bertan bidelariak –euskara maila hobetu nahi dutenak– eta bidelagunak –euskaraz ondo dakitenak– elkartzen dira, lehenek mintzapraktika egin dezaten. Elkarrizketak binaka egiten dira, eta saioak gutxienez ordu erdikoak izaten dira.

Programa honek ez du helburu didaktikorik, mintzamen eta ulermen mailan hobetzea baizik: «mingaina askatzea, lotsa kentzea eta solas egiteko garaian erraztasuna lortzea da xedea». Hartara, euskara praktikatu nahi baina norekin ez dutenek, Mintzalaguna programan bezala, eurekin hitz egiteko prest dagoen lagun bat topatuko dute.

Esan bezala, Mintzanet munduko edozein txokotan egonda ere euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzen duen proposamen berritzailea da, Internet bidez eta parte hartzaileek aukeratutako orduan. Nahi dutenari buruz hitz egin dezakete. Era berean, euskara hobetzen ari direnei lagundu nahi dienak Mintzaneten izena emanda aukera polita eskainiko die beren inguruan euskaraz aritzeko modurik ez dutenei, euskara lantzeko eta hobeto ezagutzeko aukera edukiko baitute. Bidelariak, euskara hobetzen saiatzen denak, horretarako beste pertsona baten laguntza behar du. Programan parte hartu ahal izateko maila minimo bat behar du, elkarrizketa batean parte hartzeko gai izan behar baitu. Hori frogatzeko azterketa txiki bat egin beharko du, B1 mailakoa. Bidelagunak, euskaraz ondo dakienak, laguntza eskaintzen dio praktikatu nahi duenari. Bidelagunak ez du inolako titulaziorik behar.

Mintzanet programa 2012ko abenduan aurkeztu zuten, eta 2013ko urtarrilean abiatu. Ainara Loiarte Mintzaneteko kudeatzaileak jaso dituzten azken datuen berri eman dio GAUR8ri. Azken lau urteotan 860 lagunek jardun dute programan; 2016an, 480k. Orain arte 12.593 saio egin dituzte; 2016an, 4.924.

2015ean Mintzanet +65 proiektu pilotua abiatu zuten. Ekimen honetan,



Mintzanet Egunean parte hartu zuten bidelariak eta bidelagunak. GAUR8

MINTZANET, LAGUN EUSKALDUN BAT MUNDUKO EDOZEIN BAZTERRETAN



Gorka Fernandez bidelaria (Sevilla) eta Mila Altuna bidelaguna (Azpeitia), elkar ezagutu zutenean. GAUR8

bidelagunak Gipuzkoako adinekoen egoitzetan dauden pertsonak dira.

Beste hainbat ekimen ere antolatzen ditu Mintzanetek, hala nola Euskal Sortzaileak Sarean edo Hitzaldi Irekiak. Lehena Etxepare Euskal Institutuarekin batera eraman du aurrera. Proiektu honek euskal sortzaileak eta munduko unibertsitateko ikasleak harremanetan jarriko ditu. Euskal sortzaileek Mintzanet bidezko prestakuntza-saioak eskainiko dizkiete munduko unibertsitateetako euskara eta euskal kultura ikasleei. Hitzaldi irekiak proiektuan, berriz, pertsonaia ospetsuek euskararekin izan duten eta duten harremana azaltzen dute Internet bidez egindako elkarrizketa labor batean.

Mintzanet irabazi asmorik gabeko proiektua da. Maramara taldea enpresak kudeatzen du, eta Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren laguntza du.

Maramara taldearen hizkuntza zerbitzuak hizkuntzen alorrean lan egiten du. Haren helburua komunikazioa erraztea da. Besteak beste, honako zerbitzuak eskaintzen ditu: itzulpenak, zuzenketak, interpretazioak, testuak sortu eta editatzea, azpitoluak sortu, editatu eta zuzentzea, transkripzioak egitea eta egokitzenak moldatzea.



EXPRAI

iRRITZIA:

BIZITZA
DUINA IZATEKO
ESKUBIDEA
DAUKAT...

BAINA DIRURIK
GABE EDOZEIN
GAUZA EGITEKO
PREST AURKI
DEZAKET
NIRE BURUA,
ZIURRENIK.



ETXEBIZITZA
DUINA IZATEKO
ESKUBIDEA
DAUKAT, BAINA
DIRURIK GABE
NEKEZ BERMA
DEZAKET NIRE
ESKUBIDE HORI.



ETORKIZUN DUIN BAITI
BEGIRA IKASTEKO
ESKUBIDEA DAUKAT...

BAINA DIRURIK
GABE GERO ETA
HEZKUNTZA
URRIAGOA ETA
ETORKIZUN
ILUNAGOA IZANGO
DITUT.



ESKLABOTZARIK GABE LAN EGITEKO,
LANA BERA AUKERATZEKO, LAN
BALDINTZA BIDEZKOAK ETA EGOKIAK
IZATEKO, BAITA LANGABEZIAREN
AURKAKO LAGUNTZA ERE JASOTZEKO
ESKUBIDEA DUDALA BADAKIT BAINA...



ZERA...


EEEE...

TIRA...

BA HORI.

SEME-ALABAK
IZATEKO ESKUBIDEA
EZ DA BEREZ INON
AGERTZEN...

... BAINA DIRUA
DAUKADANEZ,
HAUETAKO EDONOR
EROSI DEZAKET NIRE
BURUGOGORKERIA
ASETZEKO.



ESKUBIDEAK
DENONTZAT!

EMAKUMEAK LANEAN

Arabako emakumeen lanbideek izandako bilakaera jasotzen duen erakusketa

 JENDARTEA / Ion Salgado

Nekazariak, abeltzainak, kazetariak, politikariak, dendariak, industriako langileak...

Emakumeak langileak dira, eta Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean argi ikus daiteke, «Arabako emakumeak lanean. 1890-2000» argazki erakusketari esker. XX. mendean emakumeen lanbideetan izandako bilakaera islatzen du erakusketak.

«Emakumeen lanbideek izan duten bilakaera islatu eta emakumeek Arabako garapen ekonomikoan eta sozialean izan duten papera nabarmendu nahi izan dugu erakusketarekin», azaldu du Iker Duranak, Oihaneder Euskararen Etxeko teknikariak, argazki erakusketa Aritza Saenz del Castillo ikerlariaren jatorrizko ideiei batean oinarrituta dagoela ohartarazten duenak.

Iker Duranak gogoratu duenez, proiektua orain dela urtebete inguru hasi zen: «Oihanederreko lantaldetik Saenz del Castillori bere tesia hemen aurkezteko proposamena egin genion. 'Las damas de hierro' da tesiaren izenburua eta 50eko eta 70eko hamarkaden bitartean emakumeek egindako lanbideak jorratzen ditu, Gasteizen gehienbat».

«Baina berak beste gauza bat egin nahi zuela esan zigun eta argazki erakusketa bat egitea proposatu zigun», gaineratu du. Horrela hasi ziren elkarlanean ikerlaria eta Oihanederreko teknikariak, eta, behin erakusketaren helburuak zehaztu ondoren, Gasteizen dauden hiru artxibotako arduradunekin jarri ziren harremanetan; hau da, Arabako Foru Aldundiko artxiboko, Gasteizko Udaleko artxiboko eta Santxo Jakitunaren Fundazioko artxiboko nagusiekin.

Guztiei interesgarria iruditu zitzaizen ideia, eta kolaboratzeko prest zirela iragarri zuten. Ondoren, erakusketa aurrera eramanez, izan zuten lagunek Gasteizko Udaleko Berdintasun Saileko ordezkariarekin hitz egin zuten, eta hauek ere parte hartzeko prest zirela azpimarratu zuten. «Begi onez ikusi zuten proiektua eta

Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean ikus daiteke «Arabako emakumeak lanean. 1890-2000» erakusketa. Emakumeek herrialdearen garapen ekonomikoan eta sozialean izandako garrantzia azpimarratu nahi du erakusketak. Guztira 44 argazki daude ikusgai, lau aldi nagusitan banatuta.

Erakusketan ikus daitezkeen argazkietan emakume ezagunak ere agertzen dira, esaterako Micaela Portilla (beheko argazkia).
Jaizki FONTANEDA | ARG. PRESS



laguntzaile bezala parte hartu dute», azaldu du Duranak.

Erakundeen laguntza lortu ostean, artxiboko lanak egiten eta erakusketaren edukia lantzen hasi ziren. «Guztira 400 argazki inguru topatu genituen, baina askotan zaila zen emakumeak lanean nola ari ziren ikustea», ohartarazi du. Azkenean 44 argazki hautatu zituzten, 11 multzotan eta honako lau aldi nagusiotan banatuta: Borboien Berrezarkuntza, II. Errepublika, Frankismoa eta 1978. urtetik aurrera ezarritako sistema.

BI NORABIDEKO BORROKA

«Sektore ekonomiko bakoitzean emakumeek izandako presentzia islatzen saiatu gara», azaldu du teknikariak. Hala, XIX. mende amaierako argazkietan agertzen diren emakumeek lehen sektorearekin lotutako lanak egiten dituzte nagusiki, eta zerbitzuekin zerikusia duten lanbideak ere ikusten dira, dendariak, irakasleak eta zerbitzariak, besteak beste.

XX. mendeko hasierako argazkietan Gasteizen ospetsu izandako hainbat denda ikus daitezke: Junguitu oihal denda, gaur egun Errementari kalean dagoena, Aldama, Goya gozotegia, Linacero... Ez dira agertzen, ordea, bigarren sektorearekin lotutako lanbideen argazkiak. Arabako emakumeak lantegietan lan egiten ikusteko 1920ko hamarkadako argazkiak bilatu behar dira, San Cristobal azukre lantegiko argazkiak zehazki. Dena den, nahiz eta argazkirik egon ez, jakina da garai hartako emakumeek Fournier enpresan eta oihal lantegietan ere lan egiten zutela. Azken horietan, gainera, «emakume askok lan egin zuten», Iker Duranaren esanetan.

1930eko hamarkadan, Errepublikari esker, eskubide gehiago lortu zituzten emakumeek, eta haien presentzia handitu egin zen lan munduan. Erakusketan erizain lanetan ikus daitezke, eta Maria Leorza Uribarri Jauregiko geltokiko buruaren argazki bat ere badago. Hala ere, hamarkada horretako lehen erdialdean emandako urra-

tsak bortizki eten ziren 1936tik aurrera gerrarekin eta ondorengo diktadura faxistarekin.

Frankismoaren lehen urteetan emakumeen lanak irakas-kuntzarekin lotuta zeuden. Patriarkatua sustatzen zuen hezkuntza sisteman lan egiten zuten emakume askok. Argazki batean ikus daiteke irakasle bat neska bati gurasoekin harremanak nolakoak izan behar diren irakastean. Erreportaje honetan jasotako argazki batean irakur daitekeen bezala, aita eta ama «ohoratu» behar zituztela irakasten zieten neskei.

Emakumeak gizonen mende gelditu ziren gizarte esparru askotan. 60ko hamarkadan eraldaketa sozial, ekonomiko eta kulturala hasi zen. Argazki erakusketan Cil eta Torrot edota Aretio enpresetako emakume langileak ikus daitezke. Halaber, Gesaltza Añanan emakumeak gatza jasotzen ere ikus daitezke. Izan ere, herrialdeko udalerritxikietan emakumeak nekazariak ziren. Lurra lantzen zuten.

1978. urtetik aurrera, egoera asko aldatu zen. Mugimendu feminista indartu egin zen eta emakumeek euren eskubideak aldarrikatu zituzten kaleetan, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean sakonduz. «Aldatu egin ziren gauzak, eta, adibidez, emakumeak kazetari eta politikari bezala hasi ziren lanean. Hori aurrerapauso handia izan zen, horrelako lanbideak izateko ikasi beharra baitzegoen eta emakume ugari hasi baitziren goi mailako formakuntza jasotzen», dio Duranek. Micaela Portilla historialaria eta Mercedes Villacian EAJko politikari eta Gasteizko Udal Aurrezki Kutxa-ko presidente ohia azaltzen dira erakusketan. «Kutxa bateko lehen presidentea izan omen zen Estatuan», nabarmendu du.

Erakusketa 2000. urtean amaitzen da. XXI. mendeko argazkiak falta dira, eta etorkizuneko argazkiak ere atera behar ko dira. «Oraindik lan handia dago egiteko. Azken hamarkade-tan aurrerapausoak eman dira, baina soldatari dagokionez ez da berdintasuna lortu, eta emakumeek zailtasunak dituzte»,

azaldu du Duranek. Etorkizunari begira, espero du hurrengo urteetan horrelako erakusketak egiten badira, benetako parekotasunaren isla izatea.

«ZERGATIK EZ HEMEN?»


Parekotasuna lortzeko, Arabako Foru Aldundiak “Zergatik ez he-

men?” lema daraman kanpaina jarri du martxan. Kanpaina horrekin, helburu zehatza du Aldundiak: emakumeak datozen hilabeteetan foru suhiltzaileen erakunde autonomo sortu berria langilez hornitzeko egingo den enplegu eskaintza publikoan izena ematera animatzea.



Guztira 44 argazkik osatzen dute «Arabako emakumeak lanean. 1890-2000» erakusketa. Jaizki FONTANEDA | ARG. PRESS





Pasa den asteartean egindako ekitaldian Pilar Garcia de Salazar Ekonomia Garapen eta Lurralde Orekako diputatuak azaldu zuenez, kanpaina martxan jarri dute «emakumeak kontzientzia daitezen helburutzat hartzen dutena lortzeko gai direla». Gaineratu zuenez, «kanpainak bereziki nabarmendu nahi du berdintasuneranzko bidean lortutakoa. Mailarik gorenetara heldu gara ezin konta ahala arlotan, baina gehienbat gizonek egiten dituzten lanbideak badaude oraindik. Eta aldatu nahi dugun errealitatea da hori, kristalezko sabaia hautsi nahi dugu suhiltzaileen kasuan».

Uneotan, foru suhiltzaileen kidegoak bi emakume soilik ditu eta Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren asmoa da kopuru hori 2018ko urtarrietik aurrera handitzea, orduan aurreikusten baita Iruña Okako Parke Zentrala funtzionamenduan hastea. «Ez dugu helburu finkorik ezarri: gure itxaropena deialdian ahalik eta emakume gehienek parte hartzea da. Be-

netan pozgarria izango litzateke egungo egoera hobetzea», nabarmendu zuen diputatuak.

Zentzu horretan, Araban bakarrik bi emakume suhiltzaile daudela ohartarazi zuen. «Hemendik dei egin nahi diet Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomo berrian sartzeko interesa duten emakume guztiei, erakundearen lehen pauso itxaropentsuotan parte har dezaten. Izena emandako 225 pertsona ditugu jada eta horietatik 16 emakumeak. Izena emateko epea datorren apirilaren 25era arte egongo da zabalik».

Bestetik, EAEko enpresek erantzukizun handiko lanpostuetan emakume gehiago jarri beharko lituzketela nabarmendu zuen asteazkenean Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak. «Enpresa modernoan ia analisi guztiek gomendatzen dute emakumeak jartzea zuzendaritza egituretan, enpresak normaltasuna irabazten duelako eta ekoizpena eta kalitatea hobetu egiten direlako», nabarmendu zuen.



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Lixiba usaina

Udaberria beilategian lehertu zaigu. Eta hemen ez da gereziendorik loratu, ez da kukurik hasi kantuan, ez da kolorerik piztu: hemen ez dago urtarorik, lixiba usaina besterik ez. Mendi ize-nez izendatutako gelaxkak baino ez daude hemen, eta ate bakoitzaren parean senideak, lagunak negarrez, mutu, izenik ez zeukan heriotza horri nahi ez zuten izen bat atxikita eta hemen gaude gu ere, denoi iristen zaiguna guri ere iritsiko zitzaigula ahaztuta genuenok hemen gaude, lixiba zaurietara zuzenean bota baligute bezala.

Heriotzarik ez zen lehen, eta baldin bazen ezkutuan egon behar zuen. Burusoiltzen hasitako akuria basoan utzi zutela esango ziguten gurasoek, eta guk bagenekien baso hura ez zela etxe pareko baso bera; hara ez geneukala joaterik baina zegoen lekuan zoriontsuago egongo zela etxeo kaiolan baino. Edo haurrak ginela auzoko amona «beste etxe batera» joan zela esango ziguten; loreak leihoetan eta zakurra atarian utzita «beste etxe batera» bere borondatez ez zela joango bagenekien arren ez genuen galderarik egingo. Bagenekielako isiltasun bat izango genuela erantzun moduan. Eta isiltasunaren atzean zegoenak ikaratu egiten gintuen gu ere. Amak kontatzen zigun garai batean hildakoak etxean edukitzen zirela eta bertara joaten zirela auzotarrak azken agurra ematera. Baina guk ez dugu esaten zigunaren neurria ulertu gaur arte.

Gaur beilategian baikaude. Eta hainbeste maite izan duguna daukagu kristalaren beste aldean, begiak itxita. Eta bere gorputza den arren hutsik dago; bere begiek ez dute begiradarik, bere ahoak ez du ahotsik, bere azalak ez du usainik. Gorputza alokairuan hartutako etxe bat balitz bezala. Urteetan pilatutako liburuak kaxetan sartu eta eraman egingo ditugu apalategietatik; ez dago posterrik hormetan, ez jakirik hozkailuan; arropak desagertu egin dira esekitokietatik

eta hormak baino ez dira geratu: behinola gurea izan zen etxeak ez du jada gure usainik, gure pausuen hotsik, gure kafearen lurrunik. Gorputzak ere alokairuan hartzen ote ditugun otu zait. Baina lixiba usaina sartu zait sudurzuloetatik pentsamenduetaraino. Bata bestearen atzetik datoz lagunak eta senideak doluminak ematera eta nik irribarre ortopediko hau baino ez daukat, esaldi ortopediko hauek besterik ez esker moduan: eta «zer moduz» galdetzen didatenero lixiba usaineko hitzak botatzen ditut, «guri egokitu zaigu» edo «aterako gara honetatik» adibidez, benetan zer esan nahi dudan ez dakidan arren: beti hitzak estutzen bihurritzen zukutzen aritu naizen honek mina baino ez dudalako sentitzen gorputzeko milimetro karratu ba-

koitzean, eta logaleak puztutako begiok ez dute parean daukaten aurpegirik gordetzen, egun euritsu bateko tantak leihoetan bezala irris-tatzen dira pertsonak, koloreak eta formak nire kristal hautsietatik eta zentzuzko zerbait esan nahi nuke, zin dagit zentzuzko zerbait esan nahiko nukeela, baina ze hitz da barruak sagar ustela arrek nola jaten ari zaidana?

Inork ez zidan une honi buruz hitz egin; hau ere bizi-tzaren parte ez balitz bezala ibili naiz urteotan, axolagabe, eta orain aurrez aurre zaude kristalaren bestaldean baina jada ez zara zu. Eta beilategitik atera naiz arnasa hartzera eta jendetza dago geltokian Hernanira parranda egitera eramango dituen autobusaren zain; aldame-neko dendatik poltsak moztuz beteta atera dira haurrak eta autoak joan eta joan ari dira N-1ean; tren bat abiatu da estaziotik eta ni geldinago beilategiko atean, eta bizitzak aurrera jarraitzen du bere axolagabekeria guztiarekin nire eta, batez ere, zure zain geratu gabe: geldirik dago eskumuturreko erlojua eta hemen igarotako orduen pisua daramat bizkarran, eta zure ahotsaz oroitu nahi dut, zure oroitzapen guztiei eutsi nahi diet, zure usainei. Baina lixiba sartu zait sudurzuloetatik. •



Udaberria beilategian lehertu zaigu.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulie

Aitatasun berriak. Ongi etorriak Zaintza Planetara

XVI. mendeko moralisten arabera, haur bat ongi hezteko –izan mutikoa edo neskatoa– komenigarria zen bere lehen urteak amarekin eta etxeko emakumeekin –amonarekin, izebekin, arreba zaharragoekin– igarotzea. Izan ere, eta garaiko pentsalarien arabera, ama batek bakarrik izan zezakeen haur baten zaintza fisikoarekin zerikusia zuen guztia egiteko gaitasuna; bularra ematea, ongi elikatzea, gaixotasunean laguntzea eta, orokorrean, haur txiki hori etxean ongi zainduta egotea. Neskatoen kasuan amaren ardura handiagoa zen, bere betebeharra baitzen emakume kristau on baten identitatearen balioak alabari transmititzea. Horretarako, behar bezalako etxekoandre batek nolakoa izan behar zuen erakutsi behar zion; kozinatzen, anai-arreba gaztetxoagoak ongi zaintzen, otoi egiten eta, orokorrean, etxearen kudeaketarekin zerikusia zuen guztia transmititu behar zion ama on batek bere alabatxoari. Bazegoen garaiko esaera bat, *talīs mater talīs filia*, hau da, “nolakoa ama halakoa alaba”.

Mutikoen kasuan amaren eredia ezkorra bihurtzen zen momentu batetik aurrera, idazle batzuen arabera bost urtetik aurrera, beste batzuen arabera zazpi urtetik aurrera. Hau da, gaitasun intelektualak garrantzia hartzen zuen momentutik aurrera. Orduan ezinbestekoa zen aitaren papera: amarengatik aldendu behar zuen haurra probetxuzko gizona bihurtzea nahi bazuen behintzat. Kontu fisikoak amarenak ziren, horretarako sortu gintuen Jaungoikoak, baina heziketa intelektualak gizonen kontua izan behar zuen.

Aro Modernoko medikuntzaren arabera, emakumearen sabela hotzegia zegoenean neska bat sortzen zen, eta, horregatik, *por defecto de calor vivo*, naturalki emakumeok tontoagoak ginen. Emakumeak intelektualki ahulagoak izanda eta gaitasun fisikoei bakarrik lotuak egonda, oso baliotsuak ginen zaintzaren inguruko lanak garatzeko, baina gure haurrak hezteko moduak malgugiak ziren. Komenigarria baino gehiago zen gizontxoak amarengatik aldentzea. Mutikoa lotsagabekoa izanez gero edo mimatua, *criado de viuda* edo “alargun batek ha-

zitakoa” esaerarekin irainduko zuten kalean, ulertzen zelako etxean gizon indartsu baten presentzia ezak sortzen zituela horrelako haurrak. Aitak erakutsi behar zizkion haurrari zeintzuk ziren familiaren balioak, bere ogibidearen nondik norakoak edo sozializazio on baten sekretu guztiak. Amak ematen zuen epeltasuna hozteko, gizonen ardura zen etorkizunera begira baliagarriak egiten zitzaizkion tresnak eskaintzea.

Martxoaren 19ko Aitaren Egunaren harira, gaur egungo eredia eta diskurtsoa aurrekoarengatik aldendu den galdetu diot nire buruari. Azken finean mendeetako mezuengatik aldentzea zaila egiten zaigu guztioi. Telebista eta irratiko iragarkietan, esate baterako, Amaren Egunean gaixotasunen aurrean hor egon izanagatik amak eskertzen dituzten mezuak entzuten ditudan bitartean, aitaren kasuan bizitzaren aurrean izandako zalantzak edo zailtasunak konpontzen lagundu izanagatik aitari zuzendutako esker onak entzun ditut. Loteria saltzeko mezuak besterik ez direla esanzen dute batzuek, baina datuek diote, gure euskal gizartean, kasuen ia %90ean emakumeak direla haurrak zaintzeko eszedentziak, lehen urteetan, eta ordutegi murrizketak, hurrengo urteetan, eskertzen dituztenak. Zer esanik ez etxeko lanaren banaketaren datu tristeak aztertzen baditugu. Baina, estatistikak alde batera utziz, parkeetan haurrak zaintzen zeintzuk gauden begiratzearekin ere aski litzateke.

Hala eta guztiz ere, ez naiz ezkor agertuko. Aitaren eredu tradizionalaren aurrean, etxetik kanpo lana besterik egiten ez duen gizonaren aurrean eta igandetan futbol partida ikustera haurrak eramaten dituen aita ereduaren aurrean, beste aitatasunak sortu direlako: zaintza fisikoarekin konprometituta daudenak, edoskitzearen garrantziaz jabetu direnak, emozioen garrantziarekin kezkatuta daudenak, amaren paper intelektuala defendatzen dutenak, parekidetasunaren aldeko borrokan gurekin buru-belarri dabiltzanak, guztion mesederako euren pribilegioak baztertzeko prest daudenak. Horien aldarrikapena egin nahiko nuke gaur, ongi etorriak Zaintza Planetara. Zuen seme-alabek egindako bidaia eskertzen dizuete. •

Aro Modernoko medikuntzaren arabera, emakumearen sabela hotzegia zegoenean neska bat sortzen zen; «por defecto de calor vivo», zioten. Hartara, emakumeok tontoagoak ginen

«EGIN»-ETIK «GARA»-RA ETA...

Jabier Salutregi eta Iñaki Soto, kazetaritzaz

 **KAZETARITZA** / Xabier Izaga Gonzalez

Berrogei urte beteko dira aurten «Egin» egunkaria sortu zenetik. Urteurren hori dela eta, Laudioko Gure Aukera kultur elkarteak solasaldi bat antolatu zuen joan den astean bertako Lanbide Eskolako zentroan. Parte hartzaileak ondo ezagunak dira: «Egin»-eko zuzendari Jabier Salutregi eta Iñaki Soto, GARako zuzendaria. Gaia, jakina, kazetaritza. Euskal kazetaritza.

Isidro Murgak aurkeztu zituen Iñaki Soto GARako zuzendaria eta Jabier Salutregi «Egin»-ekoa, «orainaldian esanda, hala baita oraindik», bera ere oraindik egunkari horren Administrazio Kontseiluko kide den bezala. Duela 40 urte «Egin» kioskoetan agertzeak sortu zuen ilusioa gogorarazi zuen. Ahotsik gabekoei ahotsa emateko sortutako proiektua zen, abentura zoragarria, Aznarren eta Mayor Orejaren Gobernuak trenkatutako abentura, Garzonen morrontzarekin. «Egin» ixtetak, baina, bi «mirari» eragin omen zituen. Lehena, 24 ordu baino gutxiagoan «Euskadi Información» agertzea, eta, bigarrena, itxieratik sei hilabetera, GARA.

Ordutik politika arloan zein gizarte ohituretan izandako aldaketa garrantzitsuak aipatu zituen gero Murgak. Pentsari dagokionez, egun ziurgabetasunen artean dabilela esan zuen. Alde batetik, krisi ekonomikoak kioskoak ixtea eta hedapena eta publizitatea jaistea eragin du. Bestetik, hedabide digitalak agertu dira, eta, «atze-ohial gisa», adierazpen askatasunaren hondatze larriak ekarri dituzten auzipetze, salaketa eta epai zigortzaileak, iritzia emate hutsagatik.

«Esandako guztiaren inguruan, hala nola testuinguru honetan euskal prentsak bete behar duen lekuaz gogoeta egiteko, bi lekuko eta protagonista aparta ditugu gaur hemen: Jabier Salutregi eta Iñaki Soto».



Isidro Murga. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



JABIER SALUTREGI

«‘Egin’ agertzeak euskal kazetaritzaren panorama aldatu zuen»

«Egin»-ek eta GARak egindako ibilbidearen «lehenaz» arduratu zen Salutregi, 1977ko irailaren 29an «Egin»-en lehen alea kioskoetan agertu zenetik hasita, «ordu arte ikusi gabeko ekimen bat garatu ostean, nahiz aurrerantzean Euskal Herriak tamaina bertsuko zenbait erronkari helduko zien bere nazio nortasuna zutik irau-narazteko, eta Korrika horren erakusgarria da». Eta «pintzelada batzuk» eman zituen proiektuaren sorreraz..

Hedabide bat egiteko lehen ideia euskal kooperatibismotik hartu zuten. Baina proiektua euskal nazio mailako kooperati-

bismo gisa ulertzen zuten, Euskal Herria nazio gisa onartua izatea, euskararen defentsa eta eragile sozial guztien konbergentzia lortzea helburu. Hartarako, herri ekarpen txiki asko batu zituzten. 40.000 euskal herritarren artean 100 milioi pezeta batzea lortu zuten; kopuru hura «txori kaka» ez zenean.

Berehala konturatu ziren egunkari bat egitea ez dela batere erraza. Arlo teknikoan egin zen inbertsioa garrantzitsua izan zen, produkzio metodoa ona zen, baina langile kopurua gaindimensionatzera eramane zituen, eta, azken buruan, hondamen ekonomikora, «500 milioiko zulo bate-



Hizlariak Isidro Murgarekin, Laudion.

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

ra», alegia. Jaiotzetik urtebetera, “Egin” porrot eginda zegoen. On-do idazten zekien jendea bazuten ere, ez zekiten horrelako enpresa bat zuzentzen. Nahiz eta Madril-en egindako ikerketa espezializatu-ek ziotenez, “Egin” irakurlerik gazte eta intelektualenak zituen eta aleko irakurle gehien zituen hedabidea izan. Hura gutxi balitz bezala, Madrilek kriminalizazio kanpaina bat abiatu zuen, publizitate enpresa handiak, “Egin”-en publizitaterik jar ez zezaten, presionatuz, eta Gobernuak “Egin”-i ez zion ematen beste egunkariei gastatutako paperagatik ordaintzen zien dirua. Kanpotik etorritako eraso horiek, barruko okerrekin batuta, “Egin”-en lehen krisi handia eragin zuten. Irtenbidea dirua lortzea zen eta, «ia-ia mirariz», Euskal-Nafar Aurrezki Kutxen Federakuntzak 150 milioi pezetako kreditua eman zien. Finantza-zuzendaritza berregituratu zuten eta proiektuak indarra hartu zuen berriro. Krisi hura egunkariaren «lehen urratua» izan zen.

Aurrerago, egunkariak bere egin zuen «irudimena boterera»

eslogana eta «asmatzen hasi zen». Tokiko egunkaria egitea bururatu zitzairen eta eskualde-edizioak sortu zituzten, arrakasta handia izan zutenak. Horrek, gainera, jaietako koadernoak egiteko aukera ekarri zuen. Koaderno haiek, jakina, tokiko publizitatea lortzen zuten. Horretan “Egin” aitzindaria izan zen euskal prentsa-ren munduan, eta bide horri eutsiko zioten ondoren gainerako hedabideek.

Finantza-krisiarekin batera, «krisi politiko eta identitarioa» ere jasan zuen egunkariak, finantzarioa baino sakonagoa izango zena. Sorreran ezkerreko eta ideologia liberaleko mugimenduari zegokion ildoaren alde egin zuen egunkariak Salutregik gogorarazi zuenez. Lehen asmoa nazio egunkari bakarra izatea izan zen –egun Salutregik faltan sumatzen duena–, baina EAJk, ideia hari muzin eginda, bere kabuz eta presaka, bere pentsamolde organoa sortu zuen: “Deia”.

“Egin” ezkerreko herri ildo baten adierazpidea zen orokorki. Baina luze gabe, 1978 eta 1979 bi-

«Proiektua euskal nazio mailako kooperatibismo gisa ulertzen genuen, Euskal Herria nazio gisa onartua izatea, euskararen defentsa eta eragile sozial guztien konbergentzia lortzea helburu»

«Konbentzituta nago EAJk egunkari bakar bat egiteari uko egitea oker handia izan zela, egunkari dibertsifikazioak euskal komunikazio eremu libre bat sortzea eragotzi baitzuen»

tartean, esandako lehen barne krisia iritsiko zen, bi sektoreren arteko talkaren ondorioz. Artean ez zen Herri Batasuna existitzen, baina ezker abertzalea esaten zitzaionaren ordezkariak egunkariaren administrazio kontseilua hartu zuten; Euskadiko Ezkerra-koak, berriz, gehiengoa ziren erre-dakzioan. Horiek horrela, tentsioa handituz joan zen, Argala hil zutenean bere unerik gorene-ra iritsi zena. Egun hartan egunkaria ez zen argitaratu, erredakto-reek grebari eutsi ziotelako; sesio artean batzuek egunkaritik alde egin zuten, kaleratzeak izan ziren eta berregituraketa etorri zen.

Ordura arteko prentsak dikta-duran jasotako automatismoa-ren arabera hitz egiten zuen Euskal Herriaz, espainiar nazionalismoari atxikia. Jendeak egin behar zuena adierazten zuen. “Egin”-en proiektuan zeudenek paradigmaz aldatzeko aukeraren aurrean zeudela uste zuten, Mariano Ferrer egunkariaren lehen zuzendariak zioenez. Salutregi orain konbentzituta dago EAJk egunkari bakar bat egiteari uko egitea oker handia izan zela, egunkari dibertsifikazioak euskal komunikazio eremu libre bat sortzea eragotzi baitzuen. Nolanahi ere, “Egin” kioskoetara agertzeak euskal kazetaritzaren panorama aldatu zuen. «Herri honetako sektore handi bat ko-hesionatzea lortu zuen, eta bere informazio eta iritzi lanarekin gure nazioa irudikatzen lagundu zuen». “Egin”-en papera Euskal Herriaren bizitza, arlo guztietan, monitorizatzea omen zen.

Bigarren barne krisi handia oso positiboa izan zen gerora, borondatez eragina izan baitzen. 1992an ekin zioten eraberritzeaz –«iraulaldiaz»– aritu zen Salutregi. Hobekuntza nabarmena ekarri zien errotatiba berria erosi ondoren, egunkariko zuzendaritzak uste zuen egunkariari bul-tzada bat eman beharra zegoela. Gogorra izan zen birmoldaketa hura gauzatzea, baina ondorioak nabarmenak izan ziren, bai arlo ekonomikoari bai edukiei dago-kienez. Aldaketak ildo editoriala

indartzeaz gainera, edukiak ere gehitu zituen. Baina batik bat «erredakzio nekatu baten indar-tze psikologikoa bultzatzea, profesional haiek indarberritzea» izan zen helburua. «Egunkari baten tresna garrantzitsuen giza-kiak dira, erraz higitzen diren eta berehalako ordezkorik ez duten piezak dira. Kazetari on bat egi-tea asko kostatzen da». Eraberrit-zearekin batera eguneroko edi-toriala sartu zuten “Egin”-en, eta iritzi orrialdeak erabat zabaldu zituzten, askotan eztabaida bide gisa boikotatuak izan baziren ere. Ikerketa kazetaritzari dagokio-nez, esfortzua areagotu egin zen. Salmentek gora egin zuten eta beti gainean egon zen honda-mendi ekonomikoaren meha-txua atzean geratu zen.

«Baina datu positibo horiek Ma-drilgo Barne Ministerioiko eta EAEko Gobernuko mahaien gai-nean ere bazeuden». “Egin”-ek, Mayor Orejaren, Atutxaren eta Ardanzen bulegoetan antolatu-tako kanpaina guztiei eusteaz gain, gero eta min handiagoa ematen zien. Haien arabera, «egunero sudurrean lehertzen zi-tzairen egunkaria ginen, higiene demokratikoagatik itxi beharre-koa». Salutregiren iritziz, ezker abertzalea suntsitzeko egitasmo zabal baten barruan sartzen zen egunkariaren itxiera. Auzitegi Gorenak itxiera hura ez zela zu-zenbidearen arabera izan ebatziko zuen, baina Garzonek ez zuen horregatik inolako arazorik izan, Gürtel auzian ez bezala. «Ondorioa argia da: Gobernuaren etsaien aurkako prebarika-zioa onargarria da, baina Gobernuaren aurkakoa delitua».

Itxieraren ostean, egun bakar batean “Euskadi Información” sortu izanak erakutsi zuen mutu-rreko egoeretan zer egin daiteke-en ideia argi daudenean. Eta bes-te egunkari bat egiteko asmoa ere sortu zen. Salutregik “Euskadi Información” egunkariaren zazpi zenbaki baino ez zituen kalean irakurri, baina elkartasun mugimendua abian zen, baita egunka-ri berri bat eraikitzeko 1.000 mi-lioi biltzeko kanpaina ere.

IÑAKI SOTO

«GARA trauma batetik sortu zuen gizarte bultzada batek»

Jabier Salutregi kartzelatu baino lehenago ezagutzen zuen Iñaki Sotok. Isidro Murga eta haren anaia Patxo, ordea, biok kartzelatik atera ondoren ezagutu zituen. Bada, bi anaiok ezagutzeak zirra handia eragin ziola esanez hasi zuen solasa Sotok. Zirrara horrek ikusarazi omen zion eurek utzitako ondarea, eta, hala, hitzaldiaren zentzua ondare hori mahai gainean jartzea izan zen. Bere asmoa azaldu zuen: GARArentzat legatu hori bizirik iraunaraztea zer den azaltzea, eta zergatik batzuetan ez den erraza *continuum* horri jarraitu eta nondik gatozen ikustea.

GARA trauma batetik jaio zen. «Horixe izan baitzen ‘Egin’-en itxiera, trauma nazional eta soziala, eta gure komunitatean, trauma partikularra». Trauma hartan, birgaitzeko saioa zen GARA, jarraibide haiekin segituko zuen zerbait egiteko. Trauma harekin batera, egunkaria sortu zuen bultzada soziala azpimarratu zuen Sotok, «gizarte honetan behin eta berriz sortzen den bultzada». Dirutza hura bildu zenean, denen asmotan zegoen effortzu hartatik egunkari bat baino zerbait gehiago sortu behar zela, komunikazio talde gisa garatzeko asmoa, ahalik ondoena egiten eta gizartean gertatzen diren aldaketak laguntzen saiatu.

Lizarra-Garaziren testuinguruan jaio zen GARA, orduko ilusioarekin, eta hura apurtu izanak eragindako etsipena jasan zuen. «Herri honek hedabideak ez ezik, enpresak ere sortu behar dituen ideiarekin jaio ginen; enpresak zentzu ekonomiko tradizionalan eta zentzu humanoan, giza enpresak, ez sektore bat, alderdi bat edo talde baten sentsibilitatea ordezkatzeko, baizik eta oro har partekatutako kontu horiek

ordezkatzeko nahiarekin». Baina “Egin”-en eta GARAREN sorreren artean alde handia dagoela esan zuen Sotok. GARA sortu zenerako nork bere alderdia zuen, bere parrokia. Lizarra-Garazin nabarmena zen kooperazio borondatea; desberdinen artean, baina, oso zaila zen proiektu desberdinak batuz garatzea.

Salutregik “Deia”-z esandakoa gogorarazita, gauzak aldatu zituen beste kontu bat aipatu zuen. Vocentori bi aldiz konpetentzia ezabatu ziotela, eta horrela, modu artifizialean, hegemoniko bihurtu zela sektorean. “Egin”-en itxiera erabakigarria izan zen. Sotoren ustez, horretan elementu nagusia zatiketaren kontua da; esate baterako, futbol taldeen arteko lehia eta liskarrak garatzea. Eta horretaz hausnartu beharra dagoela esan zuen. GARAKo kirol saila aipatu zuen “Egin”-en legatuaren parte gisa. «Batzuek GARAREN parodia egiten dute, egunkari politikoa dela esanez, beraiek birjinak balira bezala, objektiboak. Bai, kazetaritzaren beste dogma handi bat. Guk diogu kazetaritza guztia politikoa dela, eta kirol kazetetan, hain zuzen, oso argi ikusten da kazetaritzaren osagarri politiko hori».

GARAK nabarmen jasan du eraikuntza nazionalari dagokion ekarpena egiteko borondatearen eta erasoan aurrean erresistitu beharraren arteko tentsioa. “Egin”-en itxiera Ajuria Eneko Hitzarmenari lotuta gogoratzen du, eta bera GARARA iritsi zenean estrategia aldaketaren gaineko eztabaida zegoen. «GARA gogoratze-ko arrazoi bat eztabaida hartan bete zuen papera dela uste dut».

Horrekin batera, aldaketa orokorra izan da nabarmenena, joera globalak eta horiek nola is-

«GARA sortu zuen bultzada soziala azpimarratu beharra dago, gizarte honetan behin eta berriz sortzen den bultzada»

«GARAREN apustu handia azken urteetan trantsizio digitala izan da. Trantsizio horrek aldaketa teknologikoarekin baino zerikusi handiagoa du aldaketa kulturalarekin»



Iñaki Soto eta Jabier Salutregi. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

latu diren gure errealtate sozialean, eta hori oso gogorra, bortitza izan da hedabideen kasuan. GARAREN apustu handia azken urteetan trantsizio digitala izan da. Trantsizio horrek aldaketa, teknologikoarekin baino zerikusi handiagoa du aldaketa kulturalarekin, «eta erronka itzela omen da, ez baitago guk har ditzakegun erabakien menpe, ez guztiz behinik behin, baina bai komunitate gisa hartzen ditugun erabakien menpe; alegia, aldaketa kultural horiek komunitate gisa kudeatzeko moduarekin zerikusia du».

«Gure krisia bikoitza da –jarraitu zuen–, Krisi ekonomikora hedabideen krisia gainean genuela iritsi baikiñen». Sotoren iritziz, hedabideen krisiaren arazorik handienetako bat da beren buruaren gainean gezurra esaten dutela. Madrilgo egunkari batek duela oso gutxi arte 400.000 ale saltzen zituela esaten zuen. Azken hileko datuen arabera, 1.000 saltzen ditu, dioenez, eta hori ere ez omen da sinesgarria. «Hedabide horiek gezurra esaten zuten, baina oso goian zeuden, eta GARAK ez zuen gezurra esaten, baina bere buruaz gezurra esaten zuen sektore batean lehiatu behar izan du. Bada diferentzia bat

hedabide ofizialei edo boterearen hedabideei eragiten dien krisiaren eta guri eragiten digunaren artean». Ez da sektore ikusmolderik izan. «Garai batean kioskora joan eta egunkari bat eskatuta Athleticeñ jantzia, Realaren zapatilak eta beste hamaika opari ematen zizkizuten, eta 80 orrialde koloretan, dena euro batean, eta horrela gure zereginak, gertatu dena eta gertatzea nahi duguna kontatzeak, balioa galdu zuen». Kazetaritzan diru sarreñ ohiko hurrenkera honakoa izan da: publizitatea, promozioak eta egunkariñ salmenta. Promozioek merkatua agortu zuten, eta errentagarriak izateko tamainarik ez zutenez, azken lekura pasatu ziren; salmentek, berriz, behera egin dute azken hamarkadotan eta publizitatea amildu egin da. «Egun idatzizko prentsa ez dira masa hedabideak, elite hedabideak baizik». Eta azaldu egin zuen: «Gure tradizio politikoan ‘elite’ kontzeptua ez da oso preziatuta. Testuinguru honetan ‘elite’ diodanean, esan nahi dut gure egunkaria erosten duen jendea dela bere inguruan eraginik handiena duena, ez dira ‘elitea’ boteretsuak edo aberatsak izateagatik, baina sindikalistak, irakasleak, gizarte mugimenduei lotu-

tako lagunak, alderdietako militanteak, laguntza taldeetakoak dira. Eta gure negozio erdua beti izan da orain denek hori izan behar duela uste dutena: lehenik salmentak, gero publizitatea eta azkenik promozioak, egiten dugunarekin lotutakoak betiere».

Zuzentzen duen egunkariaren bertuterik handiena, indarrik handiena, «Egin»-en herentzia dena, bere komunitatea da. Gaur egun marka indartsuenek, multinazionalak esfortzu itzela egiten dute komunitateak asmatzeko. Bada, esate baterako, zorroko zopa edaten dutenen komunitate bat, edo halako jantzi mota daraman jendearena, eta GARAre bertuterik handiena da egunkaria bera sortu zuen komunitate hori izatea atzean; beraz, sektore honetan komunitate baten fruitu izatea egunkari honen abantaila handia da. «Ez dugu komunitate hori asmatu ez irudikatu behar, harekin leial izan behar baizik».

GARAK aurrean dituen arriskuez jardun zuen ondoren, zoritxarrez “Egin”-en legatuarekin zerikusia dutenak. Isidro Murgak eta Jabier Salutregik gogorarazi zuten bezala, “Egin”-en arduranak zigortu egin zituzten, baina epaiak esan zuen egunkaria

ixtea legez kontrakoa izan zela; hala ere, Baltasar Garzon epaileak beste bide bat zabaldu zuen, finantzarioa, hain zuzen. “Egin” itxi zutenean, bere zorra negoziatzen ari zen Gizarte Segurantzarekin, eta haren administratzaileek beren ondarea xahutu zuten; GARA sortzean, enpresa-jarraitutasuna zela esan zuten eta, hartara, GARAK “Egin”-en tradizioaren legatua ez ezik, Gizarte Segurantzako zorra ere jaso zuen, lau milioi eta erdikoa. Egoera hura saihesteko, GARA ordainketa-etenduran sartu zen. Eskuarki sei bat hilabeteko egoera izan ohi da, enpresa ondoratu edo aurrera egiteko aukera ikusi bitartekoa. Hamahiru urte joan dira eta salbuespenezko egoera horretan jarraitzen du GARAK, seguruenik Europako eta are munduko kasu bakarra izanik. Horrek eragin handia du egunkariaren eguneroko funtzionamenduan, egunkariak erosten duen guztia, egiten dituen inbertsio guztiak, epaile-administratzaile baten kontrolpean baitaude. «“Egin” itxi zutenen erruz GARAK duen zama bidegabe eta zentzugabe horrek, etengabe aipatzen ez badugu ere, hor segitzen du».

Beste arrisku batek aipatutako aldaketa kulturalarekin eta transizio digitalarekin zerikusia du.

«Gure egunkaria erosten duen jendea da bere inguruan eraginik handiena duena, eta ez boteretsuak edo aberatsak izateagatik; sindikalistak, irakasleak, gizarte mugimenduei lotutako lagunak, alderdietako militanteak, laguntza taldeetako kideak dira»

«Ez dugu egiteko gai garen gauza positiboen kontzientziarik. GARAK hedabide gisa duen funtzioetako bat horrelakoen balioa nabarmentzea da»

GARAK harpidetzen aldeko apustu sendoa egin zuen. Hau da, «gure komunitatearekin kontratu berria egitearen aldekoa, gezurra esaten zuten horiek ezarritako dogmak apurtu eta proiektu hau zentzu guztietan bideragarria izan dadin, eta zerbitzu sozial hori betetzen jarraitu ahal izateko argi hitz egin behar dugu. Guk kazetaritza politikoa egiten dugula esaten dugu, independentea, profesionala eta boterea-ekin kritikoa izan behar duena, bezero izan gabe».

Ondoren, egiteko gai garen horren kontzientziarik ez dugula esan zuen. Fagorren erorialdia ekarri zuen gogora, emozioen arloan kolpe latza izan zena herri honentzat, GARAK askotan herri honetako balioen eredu agertu dituen gauza askoren nolabaiteko sinboloa zelako. Eta kooperatibekin kritiko izanda ere, esan zuen beharbada ez dugula ikusi, edo ez dugula balioetsi, kapitalismoaren historian hain enpresa handiak porrot egin ostean haren langileak bere enpresa taldean jasoak izan diren kasu bakarra dela, «komunitate bat hori egiteko gai izan den kasu bakarra da kapitalismoaren historian». GARAK hedabide gisa duen funtzioetako bat horrelakoen balioa nabarmentzea da Sotoren ustez. «Ez dugu transmi-

titzen jakin ‘Egin’-en eta GARAn defenditu izan ditugun ideietako asko gaur egun gizartean guztiz hegemonikoak direla». Hori erraz ikus daitekeela esan zuen, alderdi politikoen adierazpenetan. Intsumisioa ere gogorarazi zuen, eta harrigarria dela ikustea EAJren eta PSEren –zer esanik ez PPren– diskurtsoak, intsumisioari dago-kionez, noraino ziren kontserbadore eta atzerakoiak. Horrenbestez, uste osoa du egunkarion ekarpena handia izan dela ardatz soziopolitikoa egunkarion ildo editorialaren posizioetarantz mugiarazteko. «Horrek ez du esan nahi gure jarrerak erdigunekoak direnik, nagusiak direnik botoa emateko orduan, baina orain dela gutxi inork ez zuen imajinatu ere egingo uneotan Iruñeko alkatea EH Bildukoa izango zenik», jarri zuen adibide gisa Sotok.

Gizarte honek zer egiteko gai den ikusten laguntzeko «ekualizadore bat» omen da GARA, emozio-tonua altxatzeko funtzioa duena eta, horrekin batera, kultur maila eta eztabaida politikoaren maila jasotzekoa. Idatzizko prentsa gizarte baten kultur mailari eusteko baliabiderik eraginkorrena da Sotoren ustez, ordezkari politiko asko maila hori jaisten saiatzen diren arren.

PAPEREZKO PRENTSAK IRAUNGO DU, MODU DESBERDINEAN

Ordu eta erdiz luzatu zen bi zuzendarien solasa; hala ere, entzuleek ez zuten alde egiteko gogorik erakutsi eta zenbait iritzi eta galdera plazaratu zituzten. Gogoeta jakingarriak sortu ziren haietatik, instituzioen publizitatearen inguruko trikimailuetatik prentsaren etorkizuneraino.

Paperezko prentsaren etorkizunaz, Iñaki Sotok esan zuen borrokatu behar izan diren ideietako bat papera hilda dagoela ziurtatzen zuena dela. Haren ustez, pantailan irakurtzean paperean irakurtzearen antzeko sentsazioa lortu-

ko du garapen teknologikoak. Baina gaur egun ez dago horrelakorik eta paperean irakurtzea hausnarketa pausatuarekin eta asmo intelektual sakonagoarekin lotu zuen. «Uste dut kantitate txikiagoa izango bada ere, papera ez dela gurekin hilko». Isidro Murgak gogorarazi zuen telebistan paperezko prentsaren lehen orriak agertzen dituztela –gehienei GARArene ahazten bazaie ere–. Jabier Salutregik –«papera-ri atxikitako belaunaldi batekoa»– uste du paperaren etorkizuna kazetaritza sakonagoa, analitikoagoa, iritziari tarte handiagoa ematen diona egitea dela, askotan pentsatzea galarazten duen in-

formazio masa erraldoitik harago. Soto bat etorri zen Salutregirekin, eta GARAKo “Eguneko Gaiak” jarri zituen adibide. Erronka bat agertu zuen: ados egotetik harago interesatzen zaiena kontatzeko gauza diren eliteak erreproduzitzea. Sotoren ustez, irakurleek hezten joango diren sistema bat garatuko dute hedabideek, eskatutako in-

GARA egunkariak bere komunitatearekin harreman zuzena izateko abantaila du

formazioari eta informazio horretarako nahi dituzten euskarriak dagokie-nez. «Gaur egun albisteek bulego-ordutegia dute», esan zuen GARAKo zuzendariak. Azken orduko laborbaterako tartea besterik ez omen dago. Gainontzekoa NAIZen dago. «Hori bertan dago, eta erredakzioek moldatu egin behar dugu, alde batetik, eta, bestetik, gure irakurleekin negoziatu. Horregatik dira hain garrantzitsuak harpidetzak, eta horregatik du GARAK bere irakurleek nahi dutena hobeto ezagutzeko abantaila, bere oinarriarekin, komunitate horrekin, harreman zuzena izateko abantaila».



IKUSMIRA



BIDERA SALTO EGIN DUEN JENDARTEA

Aingeru Mayor sexologoaren hitzaldi batean gertatu zen. Chrysallis Euskal Herria elkarteko kidea da eta sekulako lana egiten ari da, beste askorekin batera, transexualitate egoera bizi duten pertsonen errealitatea jendarteratzen. Hitzaldi bikain haren amaieran 60 urte inguruko gizon batek eskerrak eman zizkion, «egungo haurrek ez dutelako jasango nik sufritu behar izan dudan infernua». Tamalez, batzuek bai. Baina beste asko beren familiek lagundutako transexualen lehen belaunaldiko kideak izango dira. Lehen belaunaldikoak, beraz, oraindik ezin jakin noraino ez ote diren iritsiko.

Garbi geratu da, baina, bidean ez dituztela beren familiakoek eta lagunek bakarrik lagunduko, jendartearen parte batek ere salto egin du bidera, zaharmindu usaineko sufrimendua besterik ez dakarren autobusari planto egitera. Chrysallis elkarteak zeozertan asmatu du, ez dakit zehatz zertan, baina jendarteak ezezagutzatik eta mesfidati begiratzen zuen errealitate bat lehen lerrora ekarri eta normaldu egin du neurri batean. Sekulako lezioa. Gehiagotan dastatu beharko genuke jendarte honen parte izatearen harrota-suna. Plazer bat.

Epaiketa bat baino gehiago

**Miren Azkarate
Badiola**

Gutxi behar izaten dugu tortura gure azalean pairatu dugunok egun haietan bizi izandako momentu bat, irudi bat, usain bat, ahots bat edo oroitzapen bat berriro ere gogora ekarri eta berriro ere urteak pasa izan ez balira bezala bizitzeko. Horrek erakusten digu gure bizitzek aurrera egin duten arren, ondo edo gaizki eraman arren, jasandako guztiak, egun haietan eragin zizkiguten zauriek, irekita jarraitzen dutela. Eta nire kasuan behintzat, argi dut soilik aitortzarekin itxiko zaizkidala betiko zauri horiek.

Zer esanik ez martxoaren 14an, 15ean eta 16an izandako epaiketa entzun eta ikusi ondoren... Nola azaldu zer sentitu nuen? Nola idatzi zer suposatu duen niretzat epaiketa horrek?

Egun horietan sentimendu eta emozio guztiak iragan ditut. Poza sentitu dut lau guardia zibil akusatuen aulkian eserita ikusteagatik; urduritasuna, Sandra Barreneixearen azalean jarri nintzelako testigantza torturatzailleen, epailearen eta jende ezezagunaren aurrean eman zue-nean; haserre, kanpoan guardia zibil kuadrilla bat akusatuei babesa ematera gerturatu zirelako edo fiskalak Sandra bera akusatua izango balitz bezala tratatzeagatik; tristura, itolarria eta antsietatea, bere torturatzailak ezagutu zituen momentu lazgarri hartan; inpotentzia, identifikatze momentuan eta bere testigantza ematen ari zen momentuan ezin nuelako lagundu, eta, azkenik, ezinegona, badakidalako (eta tronpatzen banaiz zoztuko naiz) ez zaiela ezer gertatuko.

Dagoeneko eztabaidaren muina ez delako egia edo gezurra ote den torturaren existentzia (gezurra balitz Euskal Herriak sekulako aktore pila galdu ditu bidean, milaka!). Jakina da alde guztietan Sandra-ren kasua eta beste milaka lagunena gertatu egin direla. Jakintza horretatik abiatuta, torturatzailak lasai eta txulo azaltzearen arrazoi bakarra da badakitela ez zaiela ezer gertatuko, hau da, hitz batean: inpunitatea.

Gutxitan bizi izan dugu eta biziko dugu berriro hilabete honetan ikusi dugun bezalako epaiketa bat. Horregatik, hein batean, nire eta beste askoren torturatzailak epaitu izan balituzte bezala sentitzen naiz, gutariko gehienek ezingo ditugulako gure torturatzailak akusatuen aulkian eseri. •

Etorkizuna amets

Antton Izagirre

Ez dira oharkabea pasa Tolosaldea, Hernani, Oiartzun...eta beste zenbait herritan Gure Esku Dago elkartearen eskutik egin berri diren galdeketak eta herritarren parte hartzeari buruzko emaitzak eta erantzunak. Gehienek kopuruen esangura aintzat hartzearen alde egin badute ere, ez dira falta izan erdi hutsik dagoen botilaren alde erreparatu eta azpimarratu dutenak.

Egia da orain arte lortutako parte hartze kopuruak ez direla nahikoa balizko Euskal Estatu burujabearen aldeko edo aurkako galdeketa loteslea bermatzeko eskatu beharko liratekeen aldean, baina, antolatzaileen hitzetan erreparatuz gero, balioa onartu behar diegu gizarte ahalduntzeko ariketa modura oso eraginkorrak eta esanguratsuak izan direlako.

Baina haratago joaz, gai izango ote gara ariketa hutsa izatetik, galdeketak etorkizunean izan beharko luketen karga eta eduki politikoaz janzteko? Nola bilakatu festa giroan ondoriorik gabeko hautatze ariketa izan dena, aldarri kolektibo erabakitzaile?

Ziur naiz seriotasun osoz lan egin duen gizarte zibilaren zati handi hori berme izango dela egindako ahalegina etorkizunean ezerezean gera ez dadin. Baina mesfidati naiz orain artean lagundu edo egiten utzi duen zenbait talde politikok ez ote duen irekitako bidean sakondu eta erabakigarri izateko orduan muzin egingo. Hortaz, nire uste apalean, herri mugimenduak egingo duen bidea babestu eta oztupoak ez jartzetik harantzago jo beharko litzateke.

Batzuek, ekimen politikoa instituzioetara mugatu nahiko dute; herri borondatearen bermea eta ordezkaritza zilegi bakarra han dagoela argudiatuz. Okerreko bidea litzateke, ordea, egiteko guztia herri mugimenduaren bizkar uztea edota egungo esku hartze instituzionalera mugatzea.

Etorkizunean behar-beharrezkoa izango da Euskal Estatuaren aldeko alderdi politiko, sindikatu eta eragile guztiak egituratzea eta herri ekimenarekin osagarritasunean jardutea. Beharrezkoa, noski, etorkizun hobe eta oparoagoa eraikitze-ko zer eredu politiko, ekonomiko, sozial... burujabe nahi eta behar dugun eztabaidatu, adostu eta jardun instituzionaletik eratorritako traba eta blokeoei aurre egiteko. •



Rosi Lazkano Larrañaga, Orioko Anabitarte auzoan. Izatez Aiako Elkano auzokoa da, baina Orion bizi da.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

infraganti ROSI LAZKANO

Aiako Elkano auzoko Agote Haundi baserrian bertsoa eguneroko jolasa zen; berdin bertso zaharrak, berdin senide arteko puntu erantzun zorrotzak. Giro horretan hazi zen Rosi Lazkano Larrañaga. Berak ez omen zekien barruan bertsolari bat zuenik, harik eta 50 urte bete zituen egunean Orioko Errikotxia bertso eskolako atea ireki zuen arte.

Rosi Lazkano Larrañaga Aiako Elkano auzoko Agote Haundi baserrian jaio zen duela 58 urte. «Bizitza gehienbat Zarautzen egiten genuen eta gero Oriora ezkondu nintzen». Bederatzi senideetan gazteena, etxean betidanik jaso du bertso giroa. «Umetan bertso asko kantatzen genituen, senide denok. Baserri denetan hala egiten zen, gainera. Garai batean jai giroa bertso-

ak eta trikitiak jartzen zuten. Baina batik bat etxean eta egunerokoan kantatzen genituen bertso zaharrak. Gure etxean beti ginen kuadrilla ederra eta tarteka puntuka ere aritzen ginen, bata besteari erantzuten. Etxeko giroan bertsoa jolasa zen eta asko gustatzen zitzaigun senide guztioi. Inori ez zitzaion, baina, burutik pasatu ere egiten bertsolari izatea, eta are gutxiago emakumeei. Bertsolariak ez zeukan fama onik, beti parrandan eta desorduetan ibiltzen

zen, alferraren fama zuen...», hasi da kontatzen Lazkano.

«Senideetan inor ez da bertso-tan bat-batean aritzen, bertso jarriak egiten dituzte batzuek, bertso zaharrak kantatu bestek... Baina nik beti esaten dut, jarritz gero, ia denak izango zirela gai bertsotan bat-batean egiteko». Izan ere, umetan etxean egiten zituzten bertso jolas horiek entrenamendu bikaina izan ziren, konturatu gabeko entrenamendua. Ez omen zuten sekula pentsatu, ordea, plazan bat-batean aritzeko aukeraren inguruan. «Neronek ere ez nuen inoiz pentsatu halakorik egingo nuenik». Baina egin du.

Oso lotsatia izan omen da, baina dagoeneko horiek denak gainditu ditu eta gero eta buelta gutxiago ematen dio «besteek zer esango ote duten» kezka horri. «Igual berandu, baina konturatu naiz besteek zer pentsatuko ote duten begira bizitzea gogorra dela», dio umoretsu. 50 urte bete zituen egun berean gerturatu zen lehenengoz Orioko bertso eskolara, Errikotxiara. «Irakurri genuen helduentzako bertso eskola jarri behar zutela

martxan eta alabak animatu ninduen. Egia da nik bertso asko idatzi izan ditudala; seme-alabek ikastolako lan bat egin behar zutenean, ospakizunen bat izan dugunean, lagunuen urtebetetzeetan... jendeari sekulako ilusioa egiten dio. Baina alabak animatuta joan nintzen bertso eskolara. Ez zait sekula ahaztuko egun hura, juxtu 50 urte bete nituen eguna zen eta pasta kaxa bat hartuta joan nintzen. Gogoratzten naiz atearen aurrean egon nintzela, zalantzan, sartu edo ez sartu. Lotsa pixka bat ematen zidan. Azkenean, baina, sartu nintzen eta geroztik asko zor diet Errikotxiakoei. Pastak bueltan etxera ekarri nituen, baina mundu berri bat zabaldu zitzaidan begien aurrean».

Bertso eskolako atea zabaldu zuen lehen egun hartan gauza asko deskubritu omen zituen. «Oraindik ere ez dakit oso ondo nik bertsoa nola egiten dudan. Baina bertso eskolara joan nintzen egun hartan lehenengoz pentsatu nuen bertsoaren egiturari, azken puntuari... gauza horien inguruan ez nuen sekula pentsatu ere egiten. Guk bertsoa egiten genuen, ahal bezala, eta kito. Harrigarria iruditu zitzaidan bertsoaren inguruko zehaztapen horien berri jakitea. Helduentzako bertso eskola zen, baina helduena ni nintzen, gainontzekoak nire semearen adinekoak. Sekulako harrera egin zidaten hasieratik eta oso gustura sentitu nintzen».

ASKO PENTSATU GABE, BAT-BATEAN

Urrian hasi zen Rosi Lazkano Errikotxian eta segidan etorri zen Korrikaren inguruko saioa Oriora, hurrengo udaberrian. «Asko pentsatu gabe, bat-batean Satxetan bertsotan ari nintzen. Sekula ez nuen egin bat-batean eta jendaurrean, eta hantxe nengoen», gogoratzen du irriz. Sekulako harrera izan zuen, jendeak asko animatu zuen eta gustura sentitu zen.

Rosi Lazkano ez da patxada-tsu igotzen oholtzara, estutasunak pasatzen omen ditu, baina ez zaizkio igartzen. «Azken urteotan sekulako aukerak eman dizkirate bertsotan egiteko han

eta hemen. Bertigoa sentitzen dut askotan, baina ez dakit ezetz esaten hain ederrak iruditzen zaizkidan aukera horiei. Nire jarraera hori da, nola esan ezetz? Ni jakitun naiz daukadan adinagatik eta emakumea naizelako beste batzuek izan ez dituzten aukerak izan ditudala. Horregatik ezin diet ezetz esan aukera horiei».

2014ko BERTSO EGUNEAN KANTARI

Bertsozale askok 2014ko Bertso Egunean jakin zuen Rosi Lazkanoren berri, juxtu generoa gai nagusi izan zuen Bertso Egunean. Gertaera batzuk eta besteak tarteko, eta asko aurreikusi gabe, Rosi Lazkano plazan bertso-tan egiteko aukerarik izan ez zuen emakume belaunaldi baten ahotsa bihurtu zen. «Nire aurretik ni baino emakume bertsolariagoak eta garrantzitsua goak izan ziren, baina inork ez zien aukerarik eman. Nik sekula ez dut pentsatu bertsolari izan nahi dudan edo ez. Orain ere ez daukat nire burua bertsolaritzat. Bertsozalea naiz eta tarteka bertsotan egiten dut, baina errespetua sortzen dit bertsolaria naizela pentsatze hutsak».

Lazkanoren ustez, baina, berak ez dauka aparteko gaitasunik. «Urtean behin elkartzen gara Elkano auzoko emakumeak afari batean. Garai bateko ohitura da eta azken urteotan berreskuratu egin dugu. Bertso jarri batzuk eramaten ditugu eta kantuan aritzen gara, gustura. Seguru nago mahai horren bueltan elkartzen diren emakume gehienak direla bertsotan egiteko gai, eta ni izaten naiz han gazteena».

Bertsolaritzak leiho asko zabaldu dizkio Rosi Lazkanori. Pare-parean eta zabal-zabal, feminismoarena. «Emakume bertsolarien talde oso interesgarriak daude eta horiekin gauza asko deskubritu ditut. Bertsolaritzari esker deskubritu dut feminismoa. Igual barruan neukan, baina kanpora ateratzen lagundu didate. Garai batean lasai ederrean kantatzen genituen emakumearen irudia hankaz gora jartzen zuten bertsoak, Txiritarenak eta beste batzuenak,



2014ko Bertso Eguneko irudia, ezkerretik eskuinera, Iraia Elias, Onintza Enbeita, Rosi Lazkano eta Saioa Alkaiza.

Gari GARAIALDE | XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

eta orain askoz kontzienteago naiz gauza horiekin. Bertsotan ere –beti ez da erraza– ez nuke gero tripak jaten utziko nauden gauzarik kantatu nahi. Gauza horiek presenteago dauzkate orain».

Bertsotan hasi zen, besterik gabe, gustatzen zaiolako. Eta kasik konturatu gabe punta-puntako bertsolariekin partekatu du oholtza. «Errespetu pixka bat ematen dit. Ni, normalean, isilik geratzen naiz, ea haiek zer dioten. Denak hurbildu zaizkit gozogo, denek lagundu didate, denek erraztu didate bidea... Oso eroso sentitu naiz puntako bertsolari horiekin ere. Bertsolari bikainak dira, baina pertsona ho-beak. Gainera bertsolarien artean oso barneratuta dago elkarri lagundu beharra eta desberdinen artean ederki moldatzeko

gaitasun handia daukate. Lan handia egiten ari dira gauzak ahal den zintzoen eta zuzenen egiteko».

Zortzi urte daramatza bat-batean bertsotan, datozkion plazak neurrian eta gustura hartuz. «Urte batzuetan bizpahiru plaza egin ditut, eta, besteetan, gehixeago. Hala ere, nahiago dut plaza handirik ez egitea, ez naiz eroso sentitzen-eta».

Bereziki go-goan du 2010eko Zarauzko gazte-txeko Kopla Txapelketa. «Han parte hartzeko deitu zidaten eta baietz esan nuen, zer zen oso ondo jakin gabe, saio txiki bat izango zelakoan. Eguna gertu-

ratu ahala konturatu nintzen non sartu nintzen, ilobak hasi zitzaizkidanean kontua aipatzen. Hara iritsi eta sekulako ilara zegoen sartzeko, auzoko jen-

dea ikusi nuen, nire adin bueltakoa, sekulako jende mordo... Oso-oso urduri jarri nintzen, ez naiz akordatu ere egiten zer eta nola kantatu nuen. Oholtzatik jaitsi nintzenean denek esan zidaten oso ondo aritu nintzela, baina ni ez nintzen konturatu errimatu nuen edo ez. Igual nahiago ditut herri bueltako saio txikiak, erosoago sentitzen naiz. Ez daukat saio handiak egiteko pretentsio handirik».

“Testurak” izeneko proiektuan parte hartu du, emakumeen testu literarioak oinarri dituzten bertso saio berezietan; Gipuzkoako Herriartekoan ari da Orioko taldearekin; herri bueltan sortzen diren saioetan gustura parte hartzen du eta ingurukoekin bertso jarriekin gozatzen segitzen du.

«Ez dakit bizitza aldatu ote zaidan 50 urte bete nituen egun hartatik. Akaso ni aldatu naiz. Uste dut nire bizitzan inflexio puntu garrantzitsu bat gertatu zela orduan. Betikoa naiz, baina barruan neuzkan gauza batzuk azaleratu zaizkit». •

amagoia.mujika@gaur8.info

«Juxtu 50 urte bete nituen egunean joan nintzen lehenengoz bertso eskolara, pasta kaxa bat hartuta. Atearen aurrean egon nintzen, zalantzan, sartu edo ez. Lotsa ematen zidan»

«Jakitun naiz daukadan adinagatik eta emakumea naizelako beste batzuek izan ez dituzten aukera batzuk izan ditudala. Horregatik ezin diet ezetz esan aukera horiei»



Rosa Arruabarrena Santos

Donostiako EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Youtuberrez eta bloggerrez baina haratagoko lan merkatua

Duela hilabete 2017ko **Mobile World Congress kongresua ospatu da Bartzelonan. 108.000 partaide igaro dira kongresu erraldoitik eta 2.200 enpresek azaldu dituzte euren produktu teknologikoak eta garapenak.** Egia esan, mugikorren inguruko azken berriak baino, teknologian egun edota etorkizun oso hurbilean emango diren berriak entzuteko aukera bikaina izan da. Beste maila apalago batean, Gipuzkoa Encounterra ospatu da duela egun gutxi. Honetan, bisitari eta partaide aktibo artean ia 3.000 pertsona bertaratu dira, baina, aipagarriena, partaideen sarrerak 15 segundotan agortu zirela izan da. Zer gertatzen ari da? Zergatik lehiatzen dira enpresak euren standak horrelako topaketetan egoteko? Erantzuna da, laburki esanda, iraultza digital-teknologikoaren ondorioz, enpresek adituen premia dutela.

Bai enpresen eraldaketa digitalak, bai ezagutza –eta trebetasun– teknikoen areagotzearen garrantziak, bai gizartearen behar berriek ere, denek, lan merkatuaren itxura erabat aldatu dute. Eta egoera berriko beharrak asetzeko profil berri-tzaileak dituzten profesional oso gaituak behar dira, hainbat arlotako ezagutzak menperatzen dituztenak eta mundu digitalean ezin hobeki nabigatzen dakitenak. Gaur egun, adibidez, arkeologo digitalak –erabiltzaileen aztarna digitalaren kudeatzaileak– edota hazkuntza hackerak –enpresaren edota markaren marketingaren dimentsio berri batean dihardutenak– dira enpresariak euren langileen artean izan nahi dituzten profesionalak. Hona hemen jarraian, egoera berri horretako zenbait profesio disruptibo, noski youtuberretatik edota bloggerretarik haratagokoak:

Arkeologo digitala: Arrasto digitala da bai enpresek bai profesionalak zaindu behar duten ezaugarrietako bat, sarean uzten diren arrastoek definitzen baikaituzte. Eta, hain zuzen ere, agertoki berri horretan funtsezko papera jokatzeko dute arkeologo digitalek. Adituok partikularrekin eta enpresekin lan egiten dute, Interneten dauden bezero horien irudia kaltetzen duten edukiak ezabatuz. Infor-

mazioaren teknologiaren erabilpenean adituak dira, eta informatikako zein lege arloko ezaguerak dituzte.


Zibersegurtasunean aditua: Iraultza digitalaren ondorioz enpresek eta partikularrek informazio pribatu asko formatu elektronikoan dute, hodeian ala ez, saretik atzigarri. Ondorioz, edozein erakundetan zibersegurtasunean adituak behar dira; hau da, informatika, komunikazio eta lege arloko gaiak besteak beste menperatzen dituzten espezialistak.

Drone-pilotuak: Drone-teknologia hainbat sektoretan aplikagarria dela eta, drone-merkatuak proiektzio handia du gaur egun. Tramankuluok pilotatzeko AESAk homologatutako ikastaro bat egin behar da. Profesional erakargarrienak dira software garatzaileak eta droneek biltzen dituzten datuetatik ondorioak lor ditzaketenak. Hori horrela, nekazaritza, garraio eta azpiegitura sektoreetan aukera handia dago filmazio, argazkigintza, zaintza edota fumigazio lanak egiteko.

Hazkuntza hacker («Growth hacker»): Profil ia ezezaguna izanik, *start up* edo enpresa berriek gehien eskatzen du-

tenen artean dago uneotan. Profesional hau marketin arloan aditua da eta soluzio teknologikoak ezartzen ditu enpresaren biraltasuna handitu, eta, hortaz, enpresaren posizionamendua web nabigatzaileetan hobetzeko. Helburua markaren irudia bultzatzea da, erreminta berriak ustiatuz etekinak maximizatzeke. Hots, irrati, prentsa eta telebista bidezko komertzializazioaren irtenbide alternatiboa da kostu merkeagoan. Horretarako, profesional honek marketina, erabilgarritasuna, soziologia, erabiltzailearen psikologia, produktuaren garapena eta bihurketarako optimizazioa menperatu behar ditu.


Erlazio birtualen arduraduna: Gaur egun erakundeak Internetera konektaturik dihardute, eta, ondorioz, lan kooperatiboak edota sareko lanak pisua hartuz doaz. Hori horrela, erakundeetako langileria eratzeko modua aldatu egin da. Erlazio birtualetako arduradunak giza baliabideetan adituak dira, eta talde berriak osatuz enpresaren eta bere langilearen *on line* identitatea lantzen dute. Espezialista hauek teknologia menperatu behar dute, eta berau pertsonen kudeaketan aplikatzeko gai izan behar dira. •



BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA

ARTURO DELGADO, EUROPATIK EUSKAL HERRIRA HELDUTAKO FOTOKAZETARITZAREN HAIZE BERRIETAN AITZINDARIA



Arturo DELGADO | BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Francoren heriotzaren ondorengo urteak oso mugituak izan ziren; manifestazioak, aldarrikapenak, amnistia eskaerak, langileen eskubideen aldeko protestak... Ondoko argazkiek Donostiako manifestazio batean gertatutako Poliziaren karga jasotzen dute eta Arturo Delgadorenak dira, Madril-en jaio eta Donostian bizi zen argazkilaria. Arturo Delgado autodidakta zen eta 50eko hamarkadaren hasieran hasi zen "La Voz de España" egunkarian ironia handiko zutabeak idazten "Arturo el del puro" izenburupean. Garai paretsuan hasi zen bineta satirikoak argitaratzen eta argazkilaritzara gerturatzen. Herri kirolen oso zalea zen, bereziki idi-demak eta traineruak maite zituen eta ondo jasota geratu dira bere milaka negatiboetan. 60ko hamarkadan euskal kulturarekin lotura sendoa izan zuen eta Remigio Mendiburu, Jorge Oteiza eta Chillidari argazkiak egin zizkien. Urtain boxeolariaren argazkilaria ofiziala izan zen eta haren atzetik ibili zen munduan barna. Urtainek Europako Txapelketa irabazi zuenean Soberano brandyaren iragarki bat egin zuen, hain juxtu, Arturoren argazki batekin. 1974. urtetik aurrera "Zeruko Argia" aldizkarian kolaborazioak egiten hasi zen. Europatik Euskal Herrira heldutako fotokazetaritzaren haize berrietan aitzindaria izan zen Arturo Delgado, bereziki 68ko maiatza eta gero.



Arturo DELGADO

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua

